

**“AEBetako
hauteskunde ondoan
jendeak berriro ere
itxaropena duela
nabaritzen da”**

May Uriarte

Ikaslea Kalifornian • 11



**“Itxialdia helduz gero,
intsumisioaz gainera desobedientzia
zibila martxan ipintzeko
aukerak egongo dira”**

Durango | Ander Berrojalbizek eta Maider Lópezek 'Haurren
itxialdirik ez!' manifestua kaleratu dute. • 10



Ostalaritza kinka larrian



**Magdalena anaiek
Txomintxoren eta
Perutxoren bosgarren
abentura kaleratu dute**

Durango | Txomin eta Peru
Magdalena anaiek Txomintxoren
eta Perutxoren abentura berri bat
aurkeztu dute. Oraingo honetan,
biki bihurriek lehendakariaren
lekua hartuko dute astebetez.
Eusko Legebiltzarrean Iñigo
Urkullugaz topo egin eta gero
hartuko dute kargua. • 24



4-ALKI

Dekorazioa eta berriztatze
integralak

alki@interioresalki.com / www.interioresalki.com

Mikeldi kalea 6, 48200 Durango. 946813895/679097744

IURRETA • EKAITZ HERRERA

Zapatua zen. Bilboko kaleak jendez lepo. Ostalariz lepo. Edo hobeto esanda, haserre dauden ostalariz lepo. Eta tartean, Durangaldeko batzuk ere bai. Tabernari eta hornitzaileek manifestazioa egin zuten Bizkaiko hiriburuan, joan zen asteburuan. Iurretan, osteran, deialdi propioa egin zuten. Herriko hainbat ostalari Askondo plazan batu ziren, protestan. Eta haien ondoan, herri-tarrak. Eurretario asko, bezeroak.

Protesta hartatik tiraka, Iurretako hainbat ostalarigaz batu da ANBOTO. Mahai baten bueltan batu ditu La Guipuzcoana jatetxeko Azucena Muñoz eta Arantza Ajuria, Oreka tabernako Yomara Crespo, eta Gauargi tabernako Vanesa Delgado eta Lorena Porras. Zapatuan herritarrek egin zuten protesta, haien bezerorik gertukoekin. Eurekin akordatu da Lorena Porras. "Bezeroek eskupeko mordoa eman ziguten barikuan, tabernak zarratu aurreko azken egunean. Izugarria izan zen", dio. Muñozek haxe gaineratu du: "Egia da. Gure tabernan ere berdin. Gogoan dut gure bezero bategaz gertatutakoa. Bezeroak gu-

"Taberna itxi aurretik eskupekoa eman zidan bezero batek; gizona negar batean zegoen"

"Ez dugu laguntzetatik bizi gura, lana egin gura dugu. Ez dugu haien ogi-apurrik gura"

Iurretako ostalariek frustrazioaren eta haserrearen artean bizi dituzte egun hauek. ANBOTOk mahai baten bueltan batu ditu La Guipuzcoana jatetxeko, Oreka tabernako eta Gauargi ostatuko kideak. Aho-bizarrik barik egin dute berba, minetik



La Guipuzcoana, Gauargi eta Oreka tabernetako ostalariak.

orain arte, bitartean gastuen %100 ordainduta. Autonomoen kuota igo egin digute, eta bitartean, kontratatutako beharginak ERTetik ateratzen eta sartzen ibili gara. Gainera, agindu zizkiguten laguntzak jaso barik ditugu oraindino". Arantza Ajuria ere ildo horri jarraitu dio: "Guk dioguna da, diru sarrerak zero badira gastuek ere zero izan behar luketela. Zertarako balio digu 300 euroko laguntza batek gero hipoteka bat eta alabaren unibertsitate ikasketak ordaindu behar baditut?", galdetu du. "Nik ez dut laguntzetatik bizi gura. Nik lana egin gura dut. Ez dut euren ogi-apurrik gura. Utzidazu lan egiten. 14 ordu sartuko ditut gura badut, baina utzi lanean", azpimarratu du Muñozek.

Iurretako ostalarien esanetan, handia ala txikia izan desberdinak dira agintarien irizpideak. Honako hau dio Lorena Porrasek: "Enpresa handietan ere egoten dira positiiboak. Zergaitik ez dituzte hango datuak ematen? Zergaitik ez dituzte enpresa horietan itxierak egiten han kutsatze-fokuak baieztatzen diren kasuetan? Hemengo taberna batek negozioa zarratu zuen egun batzuetarako, foku bat agertu zelako. Egundak gerora, berriro zabaldu zuen. Eskoletan ere horrela dabilta. Baina gure sektorean taberna guzti-guztiak zarratzeko erabakia hartu da. Denak, kolpetik. Zergaitik?". Orain kezkatzen ez bagara, zer gertatuko da? Zer gertatuko da udaberrian egoera honek horrela jarraitzen badu? Protesta egitea geratzen zaigu, zarata egitea. Ea entzuten diguten".

re tabernan bazkaltzen du egunero. Urtean 324 egunetan lan egiten badugu, bezero hori 324 egunetan etortzen da bazkaltzera. Bada, barikuan, taberna zarratu aurretik, 10 euroko eskupekoa eman zidan. Gizonezkoa negar batean zegoen. 'Badakit hau ez dela ezer, ezin dudala askorik lagundu', zioen. Negarrez zegoela eskaini zidan eskupekoa".

Horrelako egoerak bizi izan zituzten barikuan. Baina zapatutik aurrera, dena isildu zen. Negozioak

zarratu egin behar izan zituzten eta kezka azaleratu zen aldi berean. Ostalari bakoitzak bere egoera azaltzeari ekin dio. "Guk orain urtebete erosi genuen taberna, eta ezin diogu eutsi beharrik egin ezean. Bai, gazteak gara, beharbada topatu dezakegu beste lanen bat, baina eskatutako mailegua ordaintzera bideratu beharko genuke diru guztia", azaldu du Gauargiko Vanesa Delgadok. Orekako Yomara Cresporen egoera ere antzekoa da:

"Orain urtebete erosi genuen taberna, eta ezin diogu maileguari eutsi beharrik egin barik"

"Dioguna da, diru sarrerak zero badira gastuek ere zero izan behar luketela"

"Taberna hartu eta berriztatu egin genuen. Mailegu bat eskatu behar izan genuen eraberritzea finantzatu ahal izateko. Orain, bost urteko mailegu-ordainketari egin behar diogu aurre".

Haserre eta ezinegona dute Iurretako tabernariak. Muñozek gobernuko agintarienganako "dezepzioa" duela dio: "Engainatuta sentitzen naiz. Berbaz esandako dena gezurra da, itxurakeria baino ez. %50ean lan egiteko eskatu digute

Inkesta

Ostalariak estu eta larri

Eusko Jaurlaritzak ostalaritzak ixteko dekretua indarrean sartu zuenetik, ezinegona areagotu da Durangaldeko ostalarien artean. Urduri daude. Kezkatuta. Eta haserre. Ez da gutxiagorako. Negozioen eta familiakoen geroa jokoan dagoela ohartarazi dute denek.

Askotariko egoerak daude negozioen atzean. Badira negozioari eskerrak banku baten maileguari aurre egiten dieten herritarrak. Badira negozioa zabaltzeko erabakia hartu duten ostalariak. Badira kafetegi bakar bateko lanari eskerrak bizimo-

dua aurrera eramaten duten bost familia. Kasu guztietan, kezka bera dute denek: zer gertatuko den eurekin.

Egoeraz kontziente, martitzenean Eusko Jaurlaritzak diru partida bat iragarri zuen ostalaritzari laguntzeko. 30 milioi euro ipiniko ditu Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ostalariak laguntzeko. Hiru langile baino gutxiago dituzten establezimenduek 3.000 euroko laguntza jasoko dute, lautik hamarrera bitarteko plantilla dutenek 3.500 euro, eta hamar langile baino gehiago dituztenek 4.000 euro.



ELI BIZKARRALEGORRA

BIZKARRA TABERNA. Abadiño

Urkiola inoiz baino ederrago dago, baina inoiz baino jende gutxiago joan daiteke bertara. Herrien itxierak Urkiolako Bizkarrak jatetxean eragina izan zuen. Horren ondoren, ostalaritzaren itxiera etorri da.

Zelan hartu dituzue gobernuaren azken neurriak?

Oso txarto. Gainera, gu Urkiolako

tontorrean gaudenez, abadiñarrik gehienak hemendik 10 kilometro-ra bizi dira, eta guk urriaren 25etik ezin izan dugu lanik egin. Herrien itxierak eragin handia izan zuen. Gu bost lagun gara, baina beharginak ERTean sartu nituen azaroaren 1ean. Herriak itxi ziren asteburuan bezerorik izan ez genuenez, langileekin berba egin eta erabaki hori hartu nuen. Jantokira lagun bi etorri ziren.

Janaria etxera eramaten hasi zarete. Ez dugu beste aukerarik. Hau etxe handia da, eta guztiz zarratuz gero, akabo. Mirandan lan egiten duten langile batzuentzat termo batean prestatzen diet janaria. Langile bat hemendik pasatzen da eta

harantzakoan eraman egiten du. Bueltan, termoa ekartzen dit eta hurrengo egunerako zein janari gura duen esaten dit. Martitzenean, Muruetatik langile batek galdetu zidan ea fabrika batera janaria eramango nuen. Baietz esan nion. Bategaz hasten da.

Hau luzerako doa?

Baliteke Gabonetan poxpoloa apur bat piztea, baina gero berriro ere itxiera etorri daiteke.

Jaso duzue laguntzarik?

Laguntza eskatu bai, baina paper asko bete behar da, azkenean ezer ez jasotzeko. Ordenagailuan trebea ez bazara, denbora galtzen da.



ARGOITZ ARGOTE ETA
MARKEL ATUTXA

URTZA TABERNA. Zornotza

Zein izan da tabernak zarratzeko albisteak eragin dizuen sentipen nagusia?

Nahiko desilusionatuta gaude. Bagenekien neurri gogorren bat ailegatuko zena, baina ez genuen espero tabernak zarratu behar izatea. Sorpresaz hartu dugu erabakia. Ostalaritza ez da birusaren zabalkundearen eragiten duen sektore bakarra. Beste hainbat arlotan ere gertatzen da hori.

Zenbat langile zarete?

Gu biok tabernako bazkide, jabe eta behar-

gin gara. Beste langile bi ditugu kontratatuta. Orain, laurok ERTera joan beharko dugu, eta laguntzarik edo bestelakorik eskaintzen duten itxaron beharko dugu.

Azken asteotan manifestazioak egin dira Hego Euskal Herriko hiriburuetan. Iurretan ere egin zen mobilizazioa. Bat egiten duzue protesta giro horregaz?

Bai. Asko dira txarto pasatzen dabilen tabernak. Gu ere halaxe gaude. Zeozelan aurrera egin ahal izateko, protesta egitea tokatzen zaigu. Aurpegia eman beharko dugula dirudi.

Zelan joan da lehenengo konfinamendutik honako tartea?

Udakoagaz nahiko pozik gaude. Adin askotako bezeroak ditugu. Gazteak, batez ere. Haiei eskerrak lan egin ahal izan dugu, pintxoekin, gosariekin eta abar. Aurrera egin dugu.



JOSÉ
MOYA

TXANTO TABERNA. Durango

Taberna berria zabaldu duzue, noliz eta tes-tuinguru ezin nahasiagoan.

Bai. Gutxi gorabehera iazko urtarrilean hasi ginen hau guztia martxan ipintzen, eta ez genuen beste biderik. Aurrera egin beharra genuen. Negozioa martxan ipini beharra zegoen, derrigorrez. Egoera hau ahalik eta lasterren pasatzea itxaroten dugu. Izan ere, egoera txar hau ez da ostalariona bakarrik. Okela-hornitzaileagaz berba egin dugu. ERTean ditu langileak.

Eta egoera berean daude edari-hornitzaileak ere. Egoera zaila da.

Joan zen eguaztenean zabaldu zenuten taberna. Zelakoak izaten ari dira lehenengo egunak?

Hasiera gogorra izaten ari da. Lehenengo egun bietan normal antzean lan egin genuen. Barikuan itxialdia etorri zen. Orain geure burua berrasmutzen gabiltza, ideiei forma ematen, abenduari begira ahal dela. Ez dakit egoera hobetu egingo den abendu aldera, baina Gabonetako datak direla-eta, bazkariak eta afariak eskaintzea espero dugu.

Garai bateko Txantonessa Txanto da orain. Herrian oso errotuta dagoen taberna da.

Aldaketa erabatekoa da. Taberna berria da, goitik behera. Jantokian ipini gura dugu indarra. Kafe orduetan eta txikiteo orduan ere bai.



TXABER
SAN PEDRO

XELAI TABERNA. Elorrio

Zein da egoeraz egiten duzun irakurketa?

Argi dago pandemia baten erdian gaudena eta tabernak gune soziala direna. Nik ez dut txarto ikusten itxi behar izatea. Txarto ikusten dudana da zelan ixten diren. Martxoan egin zuen eztanda pandemiak. Denok harrapatu gintuen bat-batean. Eta zortzi hilabeteren ondoren ikusi dugu egoera beretsuan gaudela. Martxoko diru laguntzak kobratu barik ditugu oraindi-

no eta zuloa geroago eta handiagoa da. Gobernuaren erantzunak berdina dira. Beraz, guk dioguna da: zortzi hilabetearen ez dugu ezer ikasi? Ez dakigu zer egin behar dugun eta zer ez? Hauxe da saltzen diguten mezu subliminala: dirua behar baduzu, zoaz bankura. Horrek ernegua eta beldur handia sortzen dizkigu. Dagoneko ez dugu malkorik. Ernegatzea edo barre egitea baino ez zaigu geratzen. Eta barrea diodanean, barre faltsu bati buruz nabil.

Elorrioko ostalariek batzeari ekin diozue.

Egoera honek zerbait positiboa ekarri badu, horixe da, Elorrioren behintzat, herriko ia ostalari denok batzea lortu dugula. Ekintzak egiten hasi gara. Idatzi bat orain, bideo bat gero. Bide honek beste aukera batzuk zabaldu ditzake etorkizunera begira.



IZORNE
LUENGO

AKEBASO JATETXEA. Atxondo

Akebaso ospakizun eta banketeetara begirako negozioa da. Zelan eragin dizue egoerak?

Urtea galdutzat ematen dugu. Aurten egitekoak ginen ezkontza guztiak datorren urtera atzeratu behar izan ditugu. 42 ezkontza egitea genuen aurreikusita, baina urte osoan bi baino ez ditugu egin. Asteburuetan kartagaz ibili gara lanean, baina ez da gauza bera. Akebason, ezkontzetako

fakturazioari eskerrak bizi gara gehienbat. Eta honek zer ekarri duen? Asteazehar lankide batzuk ERTean egotea eta asteburuetan ERTetik kanpora ateratzea. Bestalde, aforo neurriek ere eragiten digute. Ezkontza batean 100dik gora pertsona batu daitezke, baina orain arte indarrean egondako neurriekin ezinezkoa zen 60 lagun baino gehiago batzea. Eta 60 horien artean langileak daude. Horrela ibili gara.

Zein sentipen sortzen dizkizue egoerak?

Haserre nago. Triste, gogorik barik. Frustrazioa dut, inpotentzia. Ostalaritza ez da birus honen kausa. Denona da errua, eta geurea zentzua. Haserrarazi egiten naute azalera handiko negozioekin gertatzen dabilenak eta garraio publikoan egoten diren pilaketek. Edozelan ere, argi dut aurrera egingo dudana. Irtengo dugu hemendik. Ostalariok gogorrak gara.

Ostalaritza zarratzeak domino efektua ekarri die eskualdeko herriburuetakoko dendei; Durangokoei eta Zornotzakoei batez ere

Norbere herritik irteteko debekuak ere eragina izan du herri bi horietako dendetako salmentan. Zornotzako Dendariak elkarteak Amorebono kanpainan ipini du herriko salmentei eusteko itxaropena. Durangoko Dendak Bai elkarteak bazkide kopurua handitu du urtea hasi zenetik hona

DENDAK • EKAITZ HERRERA

Bata bestearen atzean zutunik ipinitako domino fitxak jausten diren moduan, ostalaritza ixteak dendarien egoera kaltetu du. "Bai, igartzen dugu domino efektua. Eta ez kalean jende gutxiago dabilelako bakarrik, baita ostalaritza itxi delako ere. Kontuan hartu behar dugu ostalariak dendari askoren bezero eta hornitzaile direla", azaldu du Alex Palaciosek, Durangoko Dendak Bai elkartearen presidentea.

Zornotzan ere, antzekoa gertatu litekeela aurreikusi du Dendariak elkarteak Asier Madariaga teknikariak. "Egun gutxi daramatzagu neurri berriekin eta oraindik goiz da ondorioak ikusteko. Baina tabernen itxierak, dendetan jende gutxiago ibiltzea ekarriko du, ziur aski". Alde horretatik, Madariagak azken boladan martxan ipinitako

bonu-kanpainak ipini ditu komertzio txikia indartzeko irtenbide modura: "Azaroa hilabete zaila izaten da beti eta aurtengo azaroa beharbada, gehiago. Baina espero dugu bai Amorebono kanpainarekin eta bai Eusko Jaurlaritzak kaleratu dituen bonodendekin jende gehiago animatzea etxetik irtetzeko eta herrian erosteko".

Itxialdi perimetralak

Ostalaritza zarratzearen kolpeari, baina, bigarren kolpe bat gehitu behar zaio. Itxialdi perimetralarena. Izan ere, norbere herritik ezin irtete horrek ere isla izan dezake eskualdeko herriburuetakoko dendek salmentetan. Durangon, behintzat, baieztatu dute kalte hori. "Jaitsiera hori ere asko igarri da. Badira Durangorekin mugakideak ez diren hainbat herri. Elorrio, Zaldibar,

Lekeitio, Markina-Xemein, Ermua. Hangoek ez dute hona etortzerik. Bai, tira, ezinbestekoak diren zerbitzu batzuetara hona etorri daitezke beharbada, baina jaitsiera asko igarri da", azaldu du Palacios. Dendariak elkarteak Madariagaren arabera, kontrako efektua gertatu da Zornotzan. Zantzu batzuk, behintzat, igarri dituzte. "Zornotzako jende askok inguruko herrietan lan egiten du eta herritik kanpo egin ohi ditu erosketak. Herriak ixteak gastuaren ihes kezkarri hori saihestu du nolabait", azaldu du.

Dendak Bai, goraka

Koronabirusak denda txikiei ekarritako kalteak beste adierazle bat utzi du. Urtea hasi zenetik 19 bazkide berri gehitu ditu Dendak Baik. 174 dira guztira. Txikiek, elkarrekin batzeko joera hartu dute.



Dendariak elkartearen kanpaina Zornotzako dendariaren elkartean.

Durangaldeko alkateak eta Amankomunazgoko presidentea Osasun Sailagaz batu dira asteon

Eskualdeko osasun egoera aztertu dute. EH Bilduk Durangalde osoa kontuan hartuko duen baheketa egitea eskatu du



Durango Landako Gunean egindako baheketaren une bat. ARTXIBOA.

KORONABIRUSA • E.H. / J.D.

Durangaldeko udalerrietako alkateak eta Amankomunazgoko presidentea bilera telematikoa egin dute asteon Eusko Jaurlaritzako agintariekin. "Eskualdeak bizi

duen egoera aztertzeke eta neurri osagarriak elkarlanean eta modu koordinatuan hartzeke beharriaz dagoen ala ez zehazteko" batu dira, Amankomunazgoko iturriek ohar batean azaldu dutenez. Gotzo-

ne Sagardui Osasun sailburuagaz, Josu Zubiaga Segurtasun sailburuagaz eta Barrualde-Galdakaoko ESIko zuzendari Jon Guajardogaz batu dira eskualdeko ordezkariak. Abadiñoko, Berrizko, Elorrioko,

Durango, Iurretako, Izurtzako, Mallabiko, Mañariko, Otxandiko, Zaldibarko eta Zornotzako alkateak parte hartu dute bertan.

Amankomunazgoak azaldu duenez, Mireia Elkoroiribe presiden-

teak egin zion bilera telematikoa antolatzeko eskaria Osasun Sailari. Elkoroiribe prest agertu da elkarlanean, eta eskerrak eman dizkie bertan parte hartu duten alkate eta ordezkari guztiei.

Baheketa eskaria

Bilera horretan bertan, Durangaldeko EH Bilduko alkateek eskualde osoa kontuan hartuko duen baheketa bat egitea eskatu diote Osasun Sailari. "Birusaren atzetik ibili beharrean", baheketa masi-

"Birusaren atzetik ibi beharrean", baheketak detekzioa aurreratuko lukeela dio EH Bilduk

bo batek "detekzioa aurreratzea" ekarriko lukeela defendatu du koalizioak. Beste eskari batzuk ere egin ditu, lehen arreta zerbitzua indartzea eta aztarnari kopurua handitzea, adibidez. Bestalde, koalizioa "kezkatuta" agertu da Amankomunazgoaren zerbitzu sozialekin. "Osasun krisiagaz batera, krisi soziala ere nabaria" dela iritzita, Gizarte Zerbitzuen Kartera garatzeko "batzar bakar bat ere egin ez izana" leporatu dio EH Bilduk Amankomunazgoari.

Durangaldeko gazte mugimenduak hainbat protesta egin ditu baliabide gehiago eskatzeko

Durango Ernai antolakundeak trafikoa oztopatu zuen joan zen barikuan, autobus gehiago ipini zitezen eskatzeko. Zornotzako gazteriak manifestazioa egin du eguazten honetan

KORONABIRUSA • EKAITZ HERRERA

Protesta giroa zabaltzen hasi da eskualdean. Aurreko astean osasungintzako beharginen egin zituzten mobilizazioak, baliabide gehiago eskatzeko, eta asteon gazteriak hartu du protagonismoa. Durango eta Zornotzako gazte mugimenduek hainbat mobilizazio egin dituzte azken egunotan. Barikuan, Durango Ernai antolakundeak deituta, hainbat gazte Madalena-

ko zebra-bidea moztu zuten. Autobusetan jende asko pilatzen dela eta, zerbitzu kopurua handitzeko eskaria egin zuten.

Bestalde, eguazten iluntzean Zornotzara hedatu ziren protestak.

Ostalaritza eta kultura "zanpatu" bitartean, AHTa eraikitzen dabiltzala salatu zuten Zornotzan

Gazteriak herriko kaleak zeharkatu zituzten, "kapitalaren gainetik zaintza eta osasuna" aldarrikatzeko. Ostalaritza, kulturgintza edo ikus-kizun teknikarien lana "zanpatu" direla salatu zuten, eta "bitartean AHTa eraiki, lurra porlanez jantzi eta ingurua poliziaz bete" dela.

Ernai, Elkartasun Sarea, Harrera Taldea, Talde Feminista eta Murrri gaztetxea izan ziren manifestazioaren deitzaileetarikoz batzuk.



Zornotzan, eguaztenean egin dute protesta. IRATXE ETXEANDIA.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2020ko azaroaren 13a
19. urtea - 828. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Taxilagun zerbitzua ipini dute Durangon, adineko herritarren mugikortasuna errazteko asmoz

Durangoko Udalak 10 euroan ezarri du joanaldi bakoitzaren kostua, baina erabiltzaileek 2 euro ordaindu beharko dituzte



Ezkurdiko taxi geltokia.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udalak diruz lagunduko die adinekoei zenbait desplazamendu egiteko: etxetik Landakoko osasun etxera, anbulatorio zaharrera, Adinekoen udal egoitzara edo Bruno Maurizio Zabala kaleko gizarte zerbitzuetara. Durangoko Udalaren esanetan, "zerbitzu aitzindaria" da. "Beste herri batzuetan, zerbitzua landa eremuetan bizi diren adinekoak lekualdatzera mugatzen da. Durangon, oster, herrigunean bizi diren eta mugikortasun arazoak dituzten per-

tsonak ere sartzen dira eskaintza horretan", azaldu dute udal ordezkariak ohar batean. "Apurka-apurka, Gobernu Planaren proiektuak martxan ipintzen gabiltza, kolektiborik behartsuenei laguntzeko", gaineratu dute.

Zerbitzuak 20.000 euroko aurrekontua izango du 2020. urte honetarako. Herritar bakoitzeko, 20 bidaia lagunduko dituzte diruz, gehienez. Udalak 10 euroan ezarri du joanaldi bakoitzaren kostua, baina erabiltzaileek 2 euro baino ez dituzte ordaindu beharko. Udala

bera arduratuko da gainerako 8 euroak ordaintzeaz.

Eskari "historikoa"

Durangoko Udalaren esanetan, Taxilagun zerbitzua "eskari historikoa" da. Horren erakusle da aurreko legegintzaldian Herriaren Eskubideak udalbatza batean aurkeztutako adierazpen instituzionala. Adierazpen hark alderdi politiko guztien babesa jaso zuen.

Erabiltzaileek bete beharreko baldintzak ondorengoak izango direla jakinarazi dute Durangoko

udaletik. Durangon erroldatuta egotea eta ondorengo baldintza hauetariko bat betetzea: 1) Adinez nagusia izatea eta Bizkaiko Foru Aldundiak mugikortasun-ezintasuna aitortuta izatea. 2) 76 urte edo gehiago izatea.

Eskabideak abenduaren 11ra arte aurkeztu daitezke. Horretarako, aldeztu aurretik hitzordua eskatu beharko da Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan, nfuronos@durango.eus helbidera idatzita edo 94 603 00 00 zein 94 465 70 91 telefono zenbakietara deituta.



Garaiko Udalak luzatu egin du 'Garai bizi' bonuak erabiltzeko denbora

GARAI • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Garaiko Udalak, izurriteak kolpatutako Garaiko landetxearen eta herriko jatetxeen jarduera ekonomikoak sustatzeko asmoz, 'Garai bizi' bonuak kaleratu zituen uztailean. Herritarrek ederto erantzun zioten egitasmoari, eta egun gutxiren buruan agortu zituzten.

Hasieran, bonuok erabiltzeko epea abenduaren 31n amaitu behar zen arren, epe hori 2021eko martxoaren 31ra arte luzatzea erabaki du Garaiko Udalak. "Ostalaritzako establezimenduak eta landetxea zarratzearen ondorioz, pertsona batzuek ez dute bonuak erabiltzeko modurik izan. Beraz, epea luzatzea erabaki dugu", azaldu dute Garaiko Udaleko kideek prentsa ohar baten bitartez.

Landakon umeak artatzeko ez dagoela pediatria nahikorik salatu dute

Pediatria 24 Orduz plataformak Durangoko Landakoko osasun zentroaren egoera salatu du aste honetan

DURANGO • E.H./M.Z.

Pediatria 24 Orduz plataformak Landakoko osasun zentroan pediatria falta dagoela salatu du. "Umeek duten artatze eskubidea urratzen dabilta eta hori ezin dugu onartu", salatu dute aste honetan plataformako kideek.

Plataformak ohar batean adierazi duenez, ume jaioberriei bi edo hiru hilerik behin egin ohi zaizkien aztertzak etenda daude momentu honetan. Egoera horrek kezka handia piztu du hainbat gurasoren artean. "Hainbat familiaren keak jaso ditugu. Zazpi hilabete-ko umei ez diete azterketarik egin hile bi zituztenetik hona. Hau da, ez dute lau hilabete-ko edo sei hilabete-ko errebisiorik izan", adierazi du plataformak.

Horrez gainera, 14 urteko nerabeei ipinitako hitzordu batzuk bertan behera utzi dituztela gaineratu du.

"Familiak oso arduratuta daude. Baita haserre ere. Ez da gutxiagorako, ikusi dugulako eskualde-

"Umeek duten artatze eskubidea urratzen" ari direla salatu dute plataformako kideek

ko umeen osasuna bermatu beharrean eta pediatria 24 orduz ipini beharrean, zerbitzua oraindino gehiago murrizten dabilelako Osakidetza", kritikatu dute plataformako kideek.

Zaldibarko Euskaraldiko kideak neurri berrietara egokitu behar izan dira

Txapa banaketa azaroaren 13an eta 20an egingo dute, udaletxeko plazan



Udaletxeko plazan mahaia ipiniko dute.

ZALDIBAR • ARITZ MALDONADO

Zaldibarko Euskaraldiko batzordeak Eusko Jaurlaritzak ezarritako neurri berrietara egokitu behar izan du prestatuta zuen egitaraua. "Euskaraldiaren 15 egunetan aurrera eraman gura genituen ekintza eta ekitaldiak atzeratzea erabaki dugu", azaldu dute ohar baten bitartez Euskaraldiko kideek. Honenbestez, "gobernutik neurri berriak" ezartzen ez diren bitartean, azaroaren 26ko liburu irakurketa eta Euskaraldiaren itxiera ekitaldia baino ez dira mantenduko.

Bestalde, Euskaraldiko kideek jakitera eman dute gaur, azaroak 13 eta datorren barikuan, azaroaren 20an, udaletxeko plazan txapa banaketa egingo dute, 17:30etatik aurrera.

Berrizko merkatariek bizikleta elektrikoa, ordenagailua, telebista eta hainbat otzara zozkatuko dituzte

Berrizko Merkatarik Elkarteko kideek 10 eurotik gorako erosketak egiten dituztenei banatuko dizkiete txartelak



Ezkerretik hasita, Amaia Zabala, Xabi Castillo, Nati Alberdi eta Agurtzane Ibabe.

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

2003an, Merkatarik Elkartea sortu zuten Berrizen (BME). Sasoi hartan herriko hainbat merkatarik zuten kezkatik sortu zen talde hau, eta harrezkero hazten joan da apur-

ka-apurka. Orduetik hona elkarteak osatzen duten 25 komertzio eta tabernek hainbat une zaili aurre egin behar izan diote, baina denek batera aurrera egitea lortu dute. Orain, pandemia sasoi honetan,

inoizko sasoirik gogorrena bizitzen dabilta merkatariek, baina inoizko indartsuen irten dute kalera.

BMEk kanpaina berri bat kale-ratu berri du, eta hainbat sari banatuko dituzte herriko komertzioei-

tan, 10 eurotik gorako erosketak egiten dituzten herritarren artean. "Errifak atera ditugu, eta abendura bitartean BMEko komertzioetan 10 euro baino gehiagoko erosketak egiten dituztenei errifak banatuko

dizkiegu", azaldu du BMEko kideak. Elkarteko kideek azaldu dutenez, errifak Berrizko Merkatarik Elkarteko kide diren komertzioetan baino ez dituzte banatuko.

Sariei dagokienaz, hainbat saridun egongo dira. Lehenengo saria BH bizikleta elektrikoa eta ekipamendua dira, bigarrena ordenagailu eramangarria, hirugarrena LG smart telebista eta laugarrena 500 euroko balioa duen otzara bat. Azkenik, 300 euroko bost otzara ere zozkatuko dituzte.

Errifak Berrizko Merkatarik Elkarteko kide diren komertzioetan baino ez dituzte banatuko

Batzeko deia merkatariei

Bestalde, merkatarik elkarteko kideek elkartera batzeko deia egin diete Berrizko gainerako komertzio eta tabernetako kideei. "Oraindino elkarteak ez dauden komertzioei batzeko deia egiten diegu; gure ustez, bertako kide izateak hainbat onura ekartzen ditu eta", azaldu dute elkarteko kideek. Gainera, euren ustez, zenbat eta komertzio gehiago izan "orduan eta indar handiagoa" izango du Merkatarik Elkartea.

Elorriko ezohiko laguntzak emango dituzte zaugarritasunari aurre egiteko

Elorriko Udalak 10.000 euroko hasierako kreditua esleitu du 2020rako, eta jasotako eskarien arabera 200.000 eurora zabaldu ahal izango dela azaldu dute

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorriko Udalak aparteko egoerarako diru laguntzak ematea onartu du, gizarte bazterketa jasateko arriskuan dauden pertsonen arreta emateko eta euren garapena eta ongizatea bermatzeko. Udalak 10.000 euroko hasierako kreditua esleitu du 2020rako, eta jasotako eskarien arabera 200.000 eurora

zabaldu ahal izango da. Ekimen hau Elorriko Biziberritzen Planaren barruan kokatu du udalak. Plan hori herriko udalean ordezkatuta dauden talde politiko guztien babesagaz onartu zuten, eta tresna estrategikoa da udalerriak dituen erronkei erantzuteko.

"Neurri hori pertsonarik zaugarriekin dugun konpromisoa-

ren isla da, bizi dugun zalantza betetako egoera honetan batez ere", adierazi du Idoia Buruaga Elorriko alkateak. "Gainera, urtero horrelako laguntzak finkatzea eta bermatzea da gure asmoa, jakin badakigulako oso beharrezkoak izango direla; hau da, gerora begirako laguntza ere bada", gaineratu du Idoia Buruagak.



Igogailua ipiniko dute irisgarritasuna hobetzeko.

Apatako Euskalerria kalean igogailua ipiniko dute

Atxondoko Udalak jakinarazi du lanek lau hilabete iraungo dutela eta 295.000 euroko aurrekontua izango dutela

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko Udalak herriko irisgarritasuna eta oinezkoen mugikortasuna hobetzen jarraitzen du. Hori horrela, Euskalerria kalean igogailua ipiniko dute. Udaletik jakinarazi dutenez, dagoeneko lizitatu dituzte lanak. 295.000 euroko aurrekontua

izango dute eta lau hilabete iraungo dutela aurreikusitako. "Lan honek arkitektura-oztoporik bako pasabide bat eraikiko dugu eremu horretako irisgarritasuna hobetzeko, aspalditik dagoen eskariari erantzuna emanez", azaldu du Xabier Azkarate Atxondoko alkateak.



Plana herriko udaleko alderdi politiko guztiek babestu dute.



Gremioen gida

 **Zurgintza**

leike aroztegia & diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

 **Iturgintza**

 **UNAI GARAY**
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA
Instalataile baimendua

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

 **Iturgintza**

Mallabiena
M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

 **Iturgintza**

 **Ubide**
iturgintza
Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

 **Iturgintza**

ALDEKOA-OTALORA
iturgintza

BEROKUNTZA - AIREA - GASA
INDUSTRI MANTENTZEA

info@aldekoaotalora.com
Zubelaurte, 8 IURRETA
944 202 768
Arzubiola 19 B Industrialedea, 13-14 pabilioiak ABADIÑO
944 071 791 - 692 859 779

 **Zurgintza**

 **ATERPE AROZTZA**
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

 **Dekorazioa**

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com

 **Profesionalik onenak zure zerbitzura!**



“Elebitasunaren aitzakiapean D ereduan gaztelania sartzen da, behar ez denean ere”

Abadiñoko Institutuan hizkuntza eskubideen urraketa kasu bat gertatu zela salatu du Euskal Herrian Euskarazek

ABADIÑO • ARITZ MALDONADO

2019ko urrian, Abadiñoko institutuan D ereduko irakasleentzat hiru formakuntza saio eskaini zituzten, gaztelania hutsean. Lehenengoan hainbat irakaslegaz batera protesta egin eta gero, osteko bietara ez aurkeztea erabaki zuen Andoni Lariz irakasleak. Gero, diziplina auzia zabaldu zioten. Martitzenean, Euskal Herrian Euskarazek gertakari hauen berri eman zuen. Elkartearen berbetan, hezkuntza sisteman euskarak bizi duen egoera "ez normalizatuaren" adibide da. Hainbat eragile eta herritarrek babesa agertu diote Larizi; tartean, Abadiñoko institutuko hainbat irakaslek.

Zein fasetan dago auzia?

Prozesu administratiboa amaituta dago zoritxarrez. Hezkuntza Sailak egin du bere epaia. Formakuntza euskaraz jasotzeko eskaera ez dela bidezko arrazoia erabaki du, nahiz eta ikastetxeko plangintzan horrela aurreikusita egon. Arduradunek badakite formakuntza ordu horietan irakasle gelan egon nintzela lana egiten. Beraz, lan ordutegia bete nuen, ez formakuntzan, baina bai laneko beste

funtzio batzuk betetzen. Baina zigorra ezarrita dago jada; lau orduri dagokion lansaria ebatsi didate. Eta erabaki honek administrazio bidetik ez dauka atzera bueltarik. **Uste duzu Hezkuntza Sailetik nahi-koa egiten dela euskarazko formakuntza eskaintzeko?**

Auzi honetan Hezkuntza Saila da arduradun nagusia. Ikuskatzai-
leak ikusiz gero zentroan akats bat dagoela, bertako arduradunei aholkuak eman beharko lizkieke.

“

Beste modu batera konpondu zitekeen arazoa, baina zuzendariak administrazio prozeduragaz jarraitu zuen zuzendariak”

—

D ereduan euskarazko jarduera bat egongo dela bermatu behar dute, eta hori egin beharrean akatsa salatu zuten, irakaslea zigortzeko bidea hartu zuten.



Hainbat lankide ohik, herritarrek eta elkartek adierazi dizute babesa.

Pozik eta oso eskertuta nago. Ez da erraza izaten, tentsioa sortzen duen gai bat delako. Euskal Herrian Euskaraz oso lan txukuna egiten dabilela deritzot, iazko lankideak babesa ematera etorri dira

eta baita irakaskuntzari loturiko beste hainbat irakasle eta herritar ere. Uste dut, gainera, hauxe dela bidea horrelako gaiak gainditzeko.

Horrez gainera, esan gura nuke horrelako arazoak berriro ere ez errepikatzeko egin dudala egingakoa, eta hau beste modu batera

konpontzen ahalegintzeko. D ereduan, elebitasunaren aitzakiapean, hainbat kasutan sartzen da gaztelania, baita behar ez denean ere, eta denon aldetik bestelako jarrera batzuk hartu behar dira, ikasketa zentroei beste kalitate bat emateko.

Iurretako idazkariak alkatea salatu du, ustezko prebarikazioa leporatuta

Iñaki Totorikaguena alkateak dio udal prozedura guztiak "lege barruan" egin direla



Iurretako udaletxea.

IURRETA • J. GUENETXEA / A. BASAURI

Iurretako Udaleko idazkariak ustez prebarikazioagaitik salatu du Iñaki Totorikaguena alkatea. Salaketa horretan, behin-behineko kontu-hartzaileari aurretik zegoen langilearen aurkako laneko jazarpena egotzi dio. Durangoko Instrukzio epaitegian eta Bizkaiko Foru Aldundian salatu du. Dokumentu horretan "atzemandako irregulartasun ugari" jaso dituela azaldu du idazkariak ohar batean. Urrian jakin zen alkateak idazkaria bere kargutik kentzeko eskaria egin zuela.

Idazkariak kritikatu duenez, "alkateak bere aldetik hartu du erabakia, korporazioari kargu-uztearen berri eman barik". Dioenez, "alkateak udal idazkariaren kualifikazio falta hedabideetan azaldu ondoren

erabaki du gertatzen ari dena azaltzea". Iurretako alkatearen erabakia eta jarraitutako prozedura Lurralde Politikako eta Funtzio Publiko-ko Ministerioari salatuko dizkio. "Hartutako erabaki arbitrarioaren larritasuna ikusita, udal idazkariari defentsa eza eragiten dio, zalantzan ipintzen ditu haren gaikuntza eta kualifikazioa, eta udalean atzemandako irregulartasunak ezkutatu gura izatea baino ez du erantzuten", idazkariak azaldu duenez.

"Legearen barruan"

Iñaki Totorikaguena alkateak dio udal prozedura guztiak "lege barruan" egin direla. Eta gaineratu du prozedura "zuzena" eta "legeagaz bat datorrena" izan dela, eta baliozkotzen duen kanpoko aholkulari juridiko baten txostena dutela: "Ez diot aurkitzen oinarririk argitaratu denari". Gaineratu duenez, "kontratu txikiak esleitzeko gure prozedura ezin hobeto ezarrita dago, kontratuen legearen eta aurrekontua betearazteko gure arauaren arabera". Ildo horretan, "gure prozedura

guztiak legearen barruan daude eta sekula inork ez ditu zalantzan ipini".

Faktura guztiak alkatetza-dekretu baten bitartez onartzen direla esan du alkateak, eta dekretu hori argitaratu egiten dela, eta osoko bilkuran kontu ematen dela. Gogoratu du kontratu txikiak webgunean ere argitaratzen direla. "Beste edozer gauza difamazioaren eta kalumnien eremuan sartzen da", dio. Gaia abokatuaren esku utzi dute.

Aurrekariak

Iurretan eztabaida sortu du udaleko idazkaria kargutik kentzeko eskaerak. EH Bilduk ezohiko bilkura egiteko eskaria egin zion orain aste bi alkateari, erabaki horri buruzko azalpenak exijitzeko. Koalizioak informe juridikoa ere eskatu zuen, argitzeko ea alkateak "horrelako erabakirik hartu dezakeen udalbatzarik barik". Alkateak arrazoitu zuenez, "udalaren funtzionamendu onagaitik eta herria hobetzeko beharrezkoak diren proiektuak aurrera ateratzeko" eskatu zion Aldundiari idazkaria aldatzea.

Anbotoren lagun izan gura duzu?



Orain duzu aukera! Zelan? BFA-ren Aurrera Kultura bonuaren abantailagaz!

Anbotoren
lagun
30€

Anbotoren lagun
**Bizkaia aurrera
kultura** bonuaren
launtzagaz
15€

1

Eskuratu Bizkaia
AurreraKultura bonua
BBK-ko kutxazainean edo
[https://kutxabank-bakb.jan
to.es/eu/comprar](https://kutxabank-bakb.jan
to.es/eu/comprar)
webgunean
15€-an



2

Etorri kultura bonuagaz
Anbotoko bulegora
(Bixente Kapanaga 9
behea, Iurreta) eta egin
zaitez **Anbotoren lagun**

3

Atera etekina Anbotoren
lagun txartelari!
Gozatu abantaila eta
deskontuez



+



* Erosteke azken eguna 2021.05.24/
Erabiltzeko azken eguna 2021.05.31. Bonu
honek urtebeteko iraupena izango du

Bidali mezua: anboto@anboto.org
Deitu: 94 681 65 58
www.anboto.org



“Itxialdia helduz gero, intsumisioaz gainera desobedientzia zibila martxan ipintzeko aukerak egongo dira”

Ander Berrojalbiz durangarrak 'Haurren itxialdirik ez!' manifestua kaleratu du Maider López bikotekideagaz. Idatziak babes handia jaso du

DURANGALDEA • JONE GUENETXEA

Balizko itxialdi baten aurrean, hainbat gurasok umeen eskubideak erdigunean ipintzea eskatu dute. 'Haurren itxialdirik ez!' adierazpenak ehunka sinatzaille batu ditu. Hausnarketarako deia egin dute.

iritzi gutuna kaleratu duzue hainbat pertsonaren babesagaz (haurren-itxialdirikez.wordpress.com). Zein da helburua?

Martxotik ekainera egon zen itxialdiari buruz hausnartzea, horrelakorik berriro ezarri ez dadin presio egitea eta, ezartzekotan, ez diogula zertan familiaren edo elkarbizitza unitatearen bakardadean aurre egin behar, hau da, ez gaudela bakarrik eta asko garela erakustea.

Guraso lege, zelan bizi izan zenuen konfinamendua?

Amorrotuta. Amorrotuta, milaka langile kalean zeuden bitartean, multinazionaletako banatzaileak etxerik etxe zebiltzan bitartean, gure seme-alabak 24 orduan etxean giltzapetzeko agindua geneukala-

rusaren intzidentzia kontuan hartu barik; eta amorratuta ezkerreko alderdi, erakunde eta hedabideek mantendutako isiltasunagaitik eta tamainazko arbitrariotasunen aurrean agertutako kriterio falta-gaitik.

Eduki zenuten amorru hori kudeatzeko modurik?

Guk, familian, desobeditzea erabaki genuen. Ez zen erraza izan, hamaika pasatu genituen, baina guretzat, aipatutako arbitrariotasunen aurrean, gure haurrak giltzapetzea eta ikaratzea onartezina zen. Gero, gure esperientziaren berri eman nuen, apirilaren 25ean, Ediciones El Salmónen webgunean argitaratu zen gutun ireki baten, *Carta de un padre insumiso* izenburuagaz.

Tabernak itxi dituzte. Hurrengo neurria haurrak etxeratzea izan daitekeelakoan zaudete?

Entzun diegu jada bai gobernu zentralaren bai Eusko Jaurlaritzaren bozeramaileei itxialdiei buruz berbetan. Ez dute zehazten zer itxialdi motari buruz ari diren. Aukera guztiak mahai gainean daudela diote, berriro gizartea beldurtuz eta jendea adingabe lez tratatuz. Kezkatuta gaude, bai.

Ikerketen arabera, umeak ez dira transmititzaile garrantzitsuenak. Zelan azaldu daiteke umeen etxeratze posible bat?

Haurren itxialdi totalak ez zuen justifikaziorik izan martxoan. Orain, gainera, beste adinetako pertsonekin alderatuta, badakigu koronabirusak oso eragin txikia duela umeengan, eta ez direla transmiti-



tzaile handiak, martxoan frogarik barik esaten zen moduan, agian txikienak baino, eta kalean kutsatzeko arriskua oso baxua dela. Hala ere, Frantzia neurri gogorragoak eskatzen dituzten ahotsak entzuten hasi dira eta eskoletan maskara derrigor eramateko adina jaitsi berri dute. Gure kasuan, Espainiar Estatuan, gizartea erruduntzat jotzea ohitura bilakatu den lurraldean, edozer ikusteko eta jasateko prest egon behar dugu.

Ematen du neurriak kritikatzeko negazionismoagaz lotzen dela.

Ematen du martxoan gobernuak, estatuko osasun sistemaren egoera eskasa ezkutatze, terrore informatiboa eta estatu poliziala ezarri zituela; eta bereziki lehenengo neu-

rri horri, terroreari, buelta ematea oso konplikatua da, baita gobernuarentzat berarentzat ere. Hori dela-eta, orain, azkenik, kritikak oihartzuna edukitzen hasi dira, eta hor negazionismoa eta konspirazionismoa oso ondo datozkio gobernuari, kritika eta kritiko guztiak zaku berean sartu ahal izateko. Guk ez dugu koronabirusaren existentzia ezeztatzen, ezta gizarteko talde jakin batzuegan bere eragina arriskutsua izan daitekeela ezkutatu gura. Guk arbitrariotasunik barik, mehatxurik barik eta pertsona heldu lez tratatuak izan gura dugu.

Iritzi gutunean intsumisioaz eta desobedientzia zibilaz berba egiten duzue. Umeak etxeratuz gero, aukera bat izan daiteke?

Espero dugu haurren itxialdi berri-rik ez ezartzea, ezta familian kalera irtetea debekatzea ere, horixe da gure idatziaren lehenengo helburua. Horren ostean, gure haur eta gazteei exijitzen ari zaizkien sakrifizioen eta hauen kostu eta mugen inguruko hausnarketan sakondu beharko genuke. Aldiz, itxialdia ezarri gero, gure manifestuak jaso duen babesak frogatzen duenez, egoera ez da martxokoa, informazio askoz ere gehiago daukagu; beldurtuta baino, jende asko haserre dago, eta ez gara gutxi. Uste dugu begi bistan geratu dela, itxialdia helduz gero, intsumisio pertsonal edo familiarraz gainera, desobedientzia zibila martxan ipintzeko aukerak egongo direla.

Berton Bertokoak lapiko-jotzea antolatu du, eskoletan kalitatezko elikadura bermatu dadin aldarrikatzeko



Protesta iragartzeko, prentsaurrekoa egin zuten Abadiño Udaletxeko arkupeetan.

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Berton Bertokoak jangeletako zein ikasgeletako ratioak jaisteko eta irakasle zein hezitzaile gehiago kontratatze eskatuko die administrazio publikoei. Protesta modura, azaroaren 17an lapiko-jotzea egingo dute.

Eskoletako jantokietan kalitatezko elikadura aldarrikatzen duen dinamikako kideak kexu dira ikasturtea hasi zenetik gaur arte izan diren arazoengaitik. "Ikastetxe askotan sukaldeak falta dira. Askok jangela zarratuta izan dute. Beste batzuek zabalik, baina ikasle talde mugatu batentzat bakarrik", adierazi dute. Gaizka Agirre eta Elixabete Agirre bozeramaileek

Zelaietako eskolan (Abadiño) gertatutakoa ipini dute adibide modura egoera ilustratzeko: "Eskolako 200 bat umek jantoki zerbitzurik barik hasi behar izan zuten ikasturtea. Arazoa konpondu egin da geroa, baina umeen jateko denbora murriztuta. Txanda batek irauten duen denbora-tartean, hiru txanda ipini dituzte". Dinamikako kideek gogora ekarri dute "jateko ordua hezitze momentutzat" ulertzen eta aldarrikatzen dutela.

Protesta azaroaren 17an

Horregaitik guztiagaitik, lapiko-jotzea egingo dute, azaroaren 17an. Durangaldeko ikastetxeetan egingo dituzte joaldiok, klaseak

Hezkuntza komunitateko gainerako eragileei dei egin diete azaroaren 17ko protestagaz bat egiteko

amaitzen dituztenean, ikastetxe bakoitzaren arabera aukeratutako ordutegietan.

Bestalde, hezkuntza komunitateko gainerako eragileei eta Durangaldetik kanpoko ikastetxeei ere dei egin diete protestagaz bat egiteko. "Lekeitioko eskolak eta Santutxuko Karmelo ikastetxeak (Bilbo), esate baterako, bat egin dute protesta deialdiagaz", esan dute. Helbide elektronikoa ipini dute protestagaz bat egin gura duten eragile eta ikastetxeei begira: bertonbertokoa@gmail.com helbidera mezua bidali daiteke.

“Hauteskundeetan ostean jendeak berriro ere itxaropena duela nabaritzen da”

AEBetako hauteskundeek inoizko jarraipenik handiena izan dute; Joe Bidenen erabakien zain dago mundua



May Uriarte Sanders
Kalifornian bizi da
Elorrio | 1999

ELORRIO • JONE GUENETXEA

Donald Trumpen porrotak zeresana ematen jarraitzen du. Joe Bidenen gabinetek hainbat arlotan egin ditzakeen aldaketen zain dago May Uriarte Sanders (Elorrio, 1.999). Elorriarra Kalifornian bizi da eta gertutik jarraitu du hauteskunde kanpaina.

Hauteskunde osteko egunak dira. Zein sentsazioz geratu zara?

Itxaropen handia dut, eta uste dut jende asko dagoela sentsazio hone-

“**Herritarren unibertsitateko zorretatik 10.000 euro kenduko dituela esan du Bidenek**”

MAY URIARTE

gaz, bai Ameriketara eta baita mundu osoan ere.

Kanpaina hau zelan bizi izan duzue koronabirusaren eraginez?

Jende askok beldurra izan du. Trumpen hasieratik esan du postaz emandako botoak iruzurra izango zirela. Kanpainari buruz ezer ere ez zekitenek beldur hori izan dute.

Zer gertatu daiteke hurrengo egunetan?

Jendeak uste du Trumpen prozesu salatuko duela. Eta gaineratu zuen gobernu aldaketa ez zuela modu baketsuan egingo.

Zer da Trumpen salatua gura duena?

Postaz emandako botoak iruzurra direla dio. Hain zuzen ere, korona-

birusaren eraginez boto asko postaz eman dira. Hasieratik esan zuen boto horiek ez zirela zenbatuko, baina zenbatu dira. Bestalde, Trumpen eta bere jarraitzaileek konspirazioaren teoria asko dituzte.

Kalean tentsioa dago?

Irabazlea nor izango zen jakin baino lehenago, bai, tentsioa izan zen. Baina orain, esango nuke postaz emandako botoak iruzurra dela. New Yorken eta San Frantziskon bideo asko ikusten dira eta jai pilo dago. Hauteskundeetan ostean jendeak berriro ere itxaropena duela nabaritzen da.

Posible da ezohiko egoera honen eraginez herritarrek inoizko jarraipenik handiena egitea?

Sare sozialetatik kanpaina jarraitzea oso erraza da. Gainera, denok egin beharko genukeen gauza bat da, oso garrantzitsua da eta. Trumpen bere Twitter kontua erabiltzen du mezuak zabaltzeko. Erraza da zer esaten duen ikustea.

Bidenek zein aldaketa ekarri dezake AEBetara?

Presidente berri bat Etxe Zurian sartzen denean, bere gabinetea aukeratzea da lehenengo egiten duena. Bidenek erabaki hori hartzea oso inportantea izango da. Trumpen gabinetek ez zen oso ona. Gainera, Bidenek promesa asko egin ditu. Horietariko bat da herritarren unibertsitateko zorretatik 10.000 euro kenduko dituela. Beste gai batzuetan ere bai, arrazakeria edo ingurumen arlotan ere bai. Trumpen dio ez dagoela arrazakeriarik, ez dela existitzen, eta, beraz, Bidenek baietz uste duenez, horrek aldaketak ekarri ditzake.



Maialen Arteaga zornotzarraz 'Gaztealdia' hasi du euskararen erabilera herrian aktibatzeko

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Euskal Herriko bederatzi gazte Gaztealdia izeneko dinamika hasi dute euskararen erabilera aktibatzeko. Euskal Herriko zenbait toki geografikotako bederatzi gazte dira, eta horien artean Maialen Arteaga zornotzarraz dago. Bera da egitasmoko gazteen artean Durangaldekoa den herritar bakarra.

Dinamikako antolatzaileek Euskaraldiaren atariko ariketa lez ulertzen dute Gaztealdia. Euskara aktibatu gura dute haien inguruetan. Horregaitik, hemendik eta azaroaren 19ra arteko egunetan, Euskaraldiaren bezperara arte, bederatzi gazteek euskara hutsean bizitzeko konpromisoa hartu dute.

Ariketa honen inspirazioa Lutxo Egia idazle bilbotarrak 2015ean egindakoa du oinarri. Orduko hartan, euskara hutsean bizitzeko ariketa egin zuen Egiak Bilbon, hilabetez. Gaztealdia amaituta, bederatzi gazteek bat egingo dute Euskaraldiarekin.

HITZALDIA

Haur eta Lehen Hezkuntzako umeen gurasoentzako

Nola lagundu umeei eta, bereziki, neskei zientzia eta teknologia arloak erakargarri egiten?

Mari Luz Guenaga Gómez

Deustuko ingeniari fakultateko irakaslea eta Inspira-STEAM proiektuaren arduraduna.

Azaroak 17, 19:00etan
Online hitzaldia.

*Aurretik izena eman behar da
www.elorrikoikastola.eus orrian

ATE IREKIAK

Azaroak 20, ostirala, 16:30-17:30 bitartean
Azaroak 21, larunbata, 12:00-13:00 bitartean

*Etorri nahi duenak aurretik hitzordua hartu behar du, telefonoz deituta (946 582 261)

Alokairuan bizitzeko diru laguntzak jasoko dituen ordenantza lantzen dabilta Mañarian

Gazteei bakarrik barik, adin guztiei zabalik egongo den laguntza programa izango da

MAÑARIAN • JOSEBA DERTEANO

Udalak erraztasuna eskaini gura die Mañarian alokairuan bizi diren pertsonaei edo alokairuan bizitzeko asmoa dutenei, eta diru laguntza programa bat jasoko duen ordenantza berri bat lantzen hasi da.

"Mañarian jende asko bizi da alokairuan eta badakigu emantzipatu guran dabilten gazteak ere badaudena. Horiek denak herrian geratu daitezten, erraztasuna eskaini gura dugu", azaldu du Ainara Otxotorena alkateak.



Mañaritik joan ez daitezten, herritarrei erraztasuna eskaintzea da helburua.

Beste toki batzuetan, horrelako laguntzak gazteei bideratuta egoten dira, baina Mañarikoa "adin tarte guztiak" kontuan hartuko dituen ordenantza izango da.

Ekarpenak jasotzen

Ordenantza zehazten hasi aurretik, herritarren iritzia jasotzeko epealdia hasi dute azaroaren 19a bitartean. Xehetasunak udaleko webgunean irakurri daitezke eta ekarpenak udala.manaria@bizkaia.org helbide elektronikora bidali daitezke.

Prozesu honen ondoren hasiko dira ordenantza idazten. Hasierako onarpena urtea amaitu aurretik ematea da helburua eta 2021ean zehar indarrean ipintzea. Datorren urteko aurrekontuetan diru atal bat sortu gura dute.

Politikan

Mireia Elkororibe
Zenikaonandia
EAJ



Ta memorian

Aste honetan hainbat gai eta pertsona ekarri doguz gogora. Horien artean, Gurutzi Arregi Durangoko alaba adoptiboa izendatu dogu. Emakume ekintzailea eta adoretua. Bizi izandako garaian emakume izanik lortutakoa, gainera.

Euskal kulturak altxor bat galdu dau Gurutziren joanaz. Beste hainbat eta hainbat pertsonak moduan, gaztetatik agertu eban ohitura eta tradizioekiko zaletasuna. Gerediagako kultur elkarte eta Durangoko Azoka dira testigu. Baita Aita Barandiaran edo Ander Manterolagaz, beste batzuen artean, landutako obrak be.

"Nondik gatozen jakin behar dogu nora goazen jakiteko" eta Gurutzik gure arbasoekin harremanetan jarten gaituzten leiho batzuk zabaldu euskuzan. Izan be, atzera begiratzea garrantzitsua da aurrera jarraitzeko.

Gizartea eta euskal kulturarekiko konpromisoa ez da kontu hutsala. Bizitzak ertz asko daukatz, egoera ugari, kezka, injustiziak... Ta memorian, zure eskuzabaltasuna, Gurutzi. Zuen eskuzabaltasuna, hamaika pertsonaren hauspo. Eskuzabaltasunean hezitako norbanakoak bere helmugak ondasun komunaren barnean ezartzen dauzako, herri baten baitan.

Memoria dogu gure herriaren balio handienetakoa. Atzokoa gogoan, alkar topatuz, gaur jarrai dagigula biharkoa begirunez eraikitzen.

Hurbileko begirada honenkin, zugandik eta beste hainbesterengandik ikasteko dogun borondatearekin, gure herriko kulturaren barriro alkar topa dagigun, Gurutzi!

Durangaldea asteen

ELA sindikatuak grebara deitu ditu zaintza sektoreko langileak azaroaren 17rako

Durangaldea | ELA sindikatuak greba orokorrera deitu du azaroaren 17rako, egoera bereziki kalteberan dauden pertsonak zaintzeko ardura duten sektoreetan: adinekoak, adin txikikoak, aniztasun funtzionala dutenak... "Zaintza-sistema publiko bihurtzea da helburua, eta hau gure herrian lehentasun politiko izan dadin lortzea", azaldu dute ELA sindikatutik ohar batean.



Oier Andueza preso durangarra Murtzia II espetxetik Basaurira lekualdatuko dute

Durango | Espainiako Espetxe Erakundeek bost euskal presoren lekualdatzeak iragarri dituzte. Horietako bi Euskal Herriratu dituzte, Oier Andueza eta Oskarbi Jauregi. Beste hiru preso Zaragorako espetxera hurbilduko dituzte. 2001ean atxilotu zuten Andueza eta espetxealdiaren azken zatian Basaurira lekualdatuko dute. 2021eko hasieran bukatuko du kondena.



2021eko egur aprobetxamenduan parte hartzeko izen-ematea hasi dute Otxandion

Otxandio | Otxandioko Udalak ez du egur sortarik egingo 2021ean, baina egur aprobetxamenduan parte hartzeko aukera eskainiko du. Interesa duenak abenduaren 4ra arteko epea du izena emateko, udaletik informatu dutenez. Noizerik noizera, dela zuhaitzen bat jausi delako edo dela lan batzuen ondorioz zuhaitz batzuk bota behar direlako, egur hori aprobetxatzeko aukera eskaintzen die udalak herritarrei. Arrazoi askogaitik sortu daiteke egur aprobetxamendua. Egur sortak, oster, basoak osasuntsu mantentzeko aurretik planifikatutako egur mozketak dira.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

saltsan
MAKALLAU
Saltsan
saltsan.com

Egoera berezi honetan
MAKALLAU SALTSAN
KATERIN zabalik dago!

Enkarguak egiteko edo informaziorako,
telefonoz edo whatsapp bidez gugaz
kontaktuan jarri:

688 773 205 / 688 734 329

#etorritadastau #unezailetanerezureondoan

Bulegorako
zigiluak
Fotolitoak

Betikoak
flexografía

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

C E R A M I C A S
MACOBER

ZERAMIKA ETA GRESA
DEKORAZIOA ETA APAINKETA
ERAIKUNTZAKO MATERIALA


1300 m² BILTEGI - 800 m² ERAKUSKETA *Etan eta ikusi*

Eitua indust., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890 www.macober.com




BIKIAK

Indioen denda hauetatik guztietatik bi berdinak dira. Zeintzuk?



SUDOKUA




Kokatu beheko irudiak lauki zurietan.




ERREFLEXUA


Laukiaren laguntzagaz egin eraikin honen erreflexua uretan.




TOPATU ITZAZU

Topatu itzazu hamaika objektu hauek beheko irudian.







DOMINOA



Marraztu dagokion
irudia lauki zurietan.




TXIKITIK HANDIRA

Ordenatu ontzi hauek txikitik handira.



DIFERENTZIAK

Topatu itzazu zazpi diferentziak.



ERREZETA



Osagaiak:

- 240 ml esne
- Huruna 280 gr
- Zorro bi Royal
- Gatz apur bat (koilarakada erdi)
- 100 gr azukre
- Arrautza bi
- Gurina (koilarakada oso bat)



Nahastu gurina azukreagaz.
Utzi gurina hozkailutik
kanpora bigundu arte.



Banatu arrautzen
gorringoak eta zuringoak.
Aurreko pausoko nahasketari
gorringoa gehitu eta
berriro nahastu.



Nahastutakoari esnea,
irina, royal zorrokoa eta
gatz gehitu.
Ipini laba martxan
200 gradutara.



Arrautza zuringoak elur
punturaino jo, irabigailuagaz,
eta nahasketara gehitu.



Azkenik, nahasketa osoa
moldetxoetan sartu eta
sartu labara 20tik 30
minutura bitartean,
180 gradutara.

Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

Batu Anbotoko whatsapp taldera

Bidali alta
688 635 041
telefono zenbakira

Izan zaitez berriemaile ere.
Bidali zure argazki eta bideoak





Maskulinitateari buruz

ANTZERKIA **BERRIZ :: Azaroak 14**

Xake konpainiak antzerkira ekarritako 'road movie'-a

Anderrek (Kepa Errasti) eta Mariok (Iñigo Aranbarri) Ayamonte-ra (Huelva, Espainia) egingo duten bidaia da *Fadoak entzuten zituen gizona* obraren abiapuntua. Ander auto-stop egilea da eta Ayamon-ten egitekoa den fado lehiaketara joan gura du; Mario kamioilaria

da eta Burgosen (Espainia) batuko du Ander. Elkar ezagutzen dute lehenagotik, baina urteetan ez dute izan elkarren berri. Maskuk (Ane Gabarain) misterioa gehitu-ko dio euren bidaiaiko abenturari. Kultur Etxean, 19:00etan, Xake Produksioak-en eskutik.



Zinema

:: Berriz
KULTUR ETXEA

• **Corpus Christi**
barikua 13: 18:30
domeka 15: 18:30

:: Durango
ZUGAZA

• **Ni de coña**
barikua 13: 19:00
zapatua 14: 19:15
domeka 15: 17:00 / 19:15
astelehena 16: 17:30 / 19:30
martitzena 17: 19:00
eguzatena 18: 19:00

• **El palacio ideal**
barikua 13: 19:00
zapatua 14: 19:15
domeka 15: 17:00 / 19:15
astelehena 16: 18:30
martitzena 17: 19:00
eguzatena 18: 19:00

• **Erlauntza**
barikua 13: 19:00
zapatua 14: 17:00
domeka 15: 17:00
astelehena 16: 19:30

• **Sentimental**
zapatua 14: 19:15
domeka 15: 19:15
astelehena 16: 17:30
martitzena 17: 19:00
eguzatena 18: 19:00

• **Los Fixies contra los Crabots**
zapatua 14: 17:00
domeka 15: 12:00

• **Shin Chan en Australia.**
Tras las esmeraldas verdes
zapatua 14: 17:00
domeka 15: 12:00

:: Elorrio
ARRIOLA

• **Ane**
domeka 15: 19:00
astelehena 16: 19:00

• **Bihurri, jauretxetik kale gorria**
domeka 15: 16:00

:: Zornotza
ARETOA

• **Erlauntza**
zapatua 13: 19:00
domeka 15: 19:00
astelehena 16: 19:00

• **Stardog & Turbocat**
domeka 15: 12:00

Azaroaren 13an

DURANGO musika
Maite Larburu, 21:00etan,
Plateruena kafe antzokian.

ELORRIO musika
Arriolako XXXI. Jazz Blues Jaialdia: Juanma Urriza Quartet, 19:00etan, Arriola antzokian.

ZORNOTZA musika
Eztandap, 20:15ean,
Zelaieta zentroan. Musika Gauero + egitarauaren barruan.

MALLABIA antzerkia
'Berrerabizi' Zirika Zirkus taldearen umeentzako zirku antzerkia, 17:30ean, herriko frontoian.

Azaroaren 14an

ELORRIO musika
Arriolako XXXI. Jazz Blues Jaialdia: Tonky&Ñaco Blues Band, 19:00etan, Arriola antzokian.

ZORNOTZA ikuskizuna
'Musikarium', 18:00etan, Zornotza Aretoan. Setik 12 urtera bitarteko umeei zuzendutako antzerki-musika-kontzertu didaktikoa.

Azaroaren 17an

ZORNOTZA zinekluba
'Babyteeth', 19:00etan, Zornotza Aretoan.

Azaroaren 18an

ABADIÑO ipuin kontalaria
Ipuin kontaketa Maider Alcelayren eskutik, Txanporta kultur etxean. Lau eta bost urteko umeentzako saioa 17:00etan hasiko da. Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailako neska-mutilentzako saioa 17:45ean hasiko da. Gonbidapenak azaroaren 16an, astelehenean, banatuko dituzte Mediatekan.

ABADIÑO tailerra
'Saretzea': Irakurketa zabaleko tailerra, 17:30ean, Errota kultur etxean. 'Memorias para el futuro' proiektuaren barruan, Abadiñoko emakumeen kontakizunak beste testuinguru batzuetako emakumeen narratibekin josiko dira. Saray Perez Castillak eta Mirian Rodriguez Morane gidatu dute. Indarkeria matxistaren Kontrako Egunaren harira.

Azaroaren 19an

ZORNOTZA antzerkia
'Ez dok ero' (Patxo Telleria eta Mikel Martinez), 19:00etan, Zornotza Aretoan. Euskaraldia.

ZORNOTZA berbaldia
'Zortzikote historia' (Hizlaria: Joseba Gotzon), 19:30ean, Zelaieta zentroko auditorioan.
Lur Maitea Otxoteak borobilduko du berbaldia, kantuz. Beharrezkoa da alde zurretik izena ematea.

Azaroaren 20an

BERRIZ ikuskizuna
'Gorria', 19:30ean, Berrizko Kultur Etxean.
Miren Amurizak eta Askoa Etxebarrieta 'La Pulga'-k eskainitako ikuskizunak bertsoak eta flamenkoa uztartzen ditu.

ELORRIO musika
Arriolako XXXI. Jazz Blues Jaialdia: Ekhiore Quintet, 19:00etan, Arriola antzokian.

ZORNOTZA dantza
'Gauekoak' (Kukai dantza taldea), 19:00etan, Zornotza Aretoan.

LEKUAN LEKUKO EGUTEGIA

Ohiko saltokietan salgai

2021

Durangaldeko egutegia

ABADIÑO	Petite
ATXONDO	Kiosko Atxondo
BERRIZ	Egunon okindegia
DURANGO	Etxebarria Liburudenda
	Hitz Liburudenda
ELORRIO	Ilargi
IURRETA	Iurreta kopistegia
OTXANDIO	Korostondo janari denda
ZALDIBAR	Imendia
ZORNOTZA	Ayerdi



Anboto
Komunikabideak



@anboto



@anbotokomunikabideak

Txomintxo eta Perutxo lehendakariak izango dira anaia bikien abentura berrian

Txomin eta Peru Magdalena durangarrek Txomintxo eta Perutxo pertsonaien bosgarren abentura aurkeztu dute oraintsu



Txomintxo eta Perutxo, lehenengo planoan.

HAUR LITERATURA • ARITZ MALDONADO

Peru eta Txomin Magdalena anaiek Txomintxo eta Perutxo pertsonaien abenturen beste kapitulu bat kaleratu dute. Oraingo honetan, gazte biak Gasteizera doaz klaseki-deekin batera, Eusko Legebiltzarra bisitatzera. Bertan direla, Iñigo Urkullu lehendakaria eurengana hurreratu eta erronka moduko bat botako die anaia bikiei, tirabiratzeko baten ostean: "Zuek hobeto egingo al zenukete?". Horrela, astebetean Ajuria Enean egongo dira, aginte makila eskuan dutela. "Oso lege-gintzaldi dibertigarria, fantasiazkoa eta zoroa da", azaldu du Peru Magdalenak. Txomin irakaslea da Haur Hezkuntzan, eta Peruk irakurketa klubak dinamizatzen ditu. Beraz, biek hartu-eman zuzena dute umeei, eta horrek eragina

du euren sorkuntza prozesuan. "Umeek euren ideiak helarazten dizkigute, eta gurekin batera elkartzen ditugu gero", gehitu du Txominek. Pozik daude lortutako emaitzagaz, eta luzerako soka dute, gainera. "Ideia asko ditugu liburu berrietarako. Umeek ere egiten digute ekarpena, eta bikiak heldu izatera helduko diren galdetzen digute sarritan".

Sortako bosgarrena

Txomintxok eta Perutxok legeak sortuko dituzte eta dirua non inbertitu erabakiko dute oraingo abentura honetan. Baina orain arteko lau liburuetan bestelako abenturak eduki dituzte. "Maitemindu egin dira, trikimailuak egin dituzte eskolako jangela jannari txarra ez jateko, armairuaren

atzeko aldea denboraren makina bihurtu dute...", gogoratu du Peruk. "Hainbat gai eta egoera landu dugu liburuetan, baina nahiko modu naturalean irten zaizkigu beti", gehitu dio anaiak. Ohi den moduan, Magdalenatarrek Iosu Mitxelena izan dute bidelagun, eta bera arduratu da marrazkiez, aurreko liburuetan legez.

**Iosu Mitxelena
ilustratzailea arduratu
da marrazkiez, aurreko
liburuetan legez**

Juul saria, beste behin

Magdalena anaiek pozarren dardatzen Txomintxoren eta Perutxoren

abentura sorta izaten ari den harreragaz. "Umeek esaten digute oso gustura irakurtzen dituztela", azaldu du Txominek. Hain zuzen ere, Juul saria irabazi dute aurreko abentura honetan, liburuaren kaleratu eta ia segidan. Ikastolen Elkarteak gazteen artean irakurzaletasuna bultzatzeko helburuagaz antolatzen du Juul sariketa. "Pozik gaude eta saritzeak bete egiten gaitu, umeek aukeratzen dituztelako irabazleak. Ez daude heldu batzuk, euren seriotasunetik, umeentzako libururik onenak zeintzuk diren aukeratzen", esan dute. Orokorrean ere, liburuak harrera oso ona dutela nabarmendu gura izan dute Magdalenatarrek. "Aurreko liburuetariko batzuk bosgarren eta seigarren edizioan daude jada", gaineratu dute.



**Karrika taldeak
hirugarrenez atzeratu
behar izan du
'Karrikan' obraren
estreinua**

ANTZERKIA • A.M.

Osasun alerta egoeran ezarritako neurri murriztaileen ondorioz, Karrika antzerki taldeak beste behin ere atzeratu behar izan du bere obra berriaren estreinua. Asteburu honetan ziren aurkeztekoak *Karrikan*, San Agustinen. Bederatzi aktorek parte hartu dute sorkuntza kolektibo honetan: Uxuri Gallas-tegik, Maite Lopezek, Endika Zamalloak, Naiara Lopezek, Gorka Madrazok, Garazi Magunagoitiak, Mikel Uribe-larreak, Maialen Magunagoitiak eta

**Jose Martin Urrutia
'Txotxe' hil osteko
lehenengo obra da
Karrikarentzako**

**'Karrikan' asteburu
honetan estreinatu behar
zuten; data berria erabaki
barik dute oraindino**

Eider Chavesek. Oraingo honetan, Patricia Urrutiak egin ditu zuzendari lanak. Jose Martin Urrutia 'Txotxe' hil eta gero, Karrika antzerki taldeak estreinatuko duen lehenengo lana izango da *Karrikan*. Estreinuaren data berria erabakitzeko dute oraindino.

hitz
liburudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com



Jaso liburuak zure etxean!

Eskaerak WhatsApp-ez eskatu
686 214 964



bizum -ez ordaindu



pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D · 48200 Durango
pzubizarreta@gmail.com
Tel.: 946 550 049 / 695 784 963



Erakusketa Durangoko museoan dago ikusgai.

Merino argazkilari durangarraren lanekin erakusketa egin dute

Azaroaren 10etik dago ikusgai erakusketa, Durangoko Arte eta Historia Museoan

ARGAZKIGINTZA • A.M.

Durangoko Arte eta Historia Museoak erakusketa antolatu du Carlos Merino argazkilari durangarraren lanekin. Merino Bastidan (Araba) jaio zen, baina txikitan Durangora bizitzera etorri zen. 60ko eta 70eko hamarkadetan argazki-denda bat eduki zuen zabalik, eta horrez gainera, prentsarako ere ateratzen zituen argazkiak. Bere ibilbideko 50 argazki bildu dituzte erakusketarako. Bigarren solairuan egongo dira argazkiak ikusgai. Bestalde, lehenengo solairuan sasoi hartako

Bere ibilbideko 50 argazki bildu dituzte erakusketarako; sasoi hartako tresnak ere egongo dira

Carlos Merinoren lanak biltzen dituen argazki katalogoa salgai dago bertan, 10 euroan

tresnak erakutsiko dituzte, eta baita zenbait argazki ere proiektore baten bitartez.

Durangoko argazkilariak 90eko hamarkadatik hona, Durangoko hainbat argazkilariren erakusketak egin dituzte Durangoko museoan, *Objektiboa Durangon* izenagaz. Aurretik, Foto Sol, Foto German eta Sabino Ansorenaren argazkiekin egin dituzte erakusketak eta katalogoak. Hamar euroren truke Carlos Merinoren argazki katalogoa erosi daitezke.

Jazz eta blues eskaintzari eutsiko diote Arriolan

Gaur hasiko da Arriolak antolatzen duen Jazz Blues jaialdiaren XXXI. edizioa; bihar ere kontzertua egongo da

MUSIKA • A.M.

Egoerarik errazena izan ez arren, Arriolak Jazz Blues jaialdiari eustea erabaki du. Gaur abiatuko da XXXI. edizioa, Juanma Urriza bateria-jotzaile eta konpositore nafarraren kontzertuagaz; lauko formatuan etorriko da Elorriora. Urrizak *Mamel* lana aurkeztuko du. Musikari legez, zenbait estilo eta doinutara moldatzeko erraztasuna erakutsi du bere ibilbidean zehar, hasi jazzetik, eta pop-rock, ska eta flamenkora. Urrizak goi

mailako jazz ikasketak egin ditu Musikenen.

Bestalde, zapatuan blues doinuek hartuko dute Arriola. Estatuko *bluesman*-ik ospatsuenetariko bi igoko dira bertako agertokira, Tonky de la Peña eta Ñaco Goñi. De la Peña eta Goñi 1984an elkartu ziren lehenengoz, eta ordutik hona bizirik eutsi diote bluesaren garrari.

Emanaldi biak 19:00etan hasiko dira eta sarrerak hamar euroan erosi ahalko dira.



Tonky de la Peña.


Gai librean

Gorputza eta oroimena

Azken asteetan ikusten gabiltza zelan musika areto, gaztetxe eta talde txikientzat egoera arrotzagoa bihurtu den, eta horregatik, oraingoan oroitzapen xume batzuk eskaintzera besterik ez nator. Alba Rico pentsalariak "gorputza" garela ahaztu dugula dio, eta ados nagoen arren, ez diot sinetsi nahi. Ez oraindik. Kontaktu fisikoa gara. Izerdia eta negarra.

2010. Institutuko azterketak amaituta, busean joan ginen Bilboko Kafe Antzokira. Sexty Sexers eta Surfin Kaos taldeak ikusi ostean, maite genuen bolar altuko hard rocka euskaraz ere egin zitekeela ulertu genuen. Etxera bueltatzeko aita batu behar izan gintuen (beste behin).

2012. Dinero hirukoteak kontzertu sekretu bat eman behar zuen Berrizko



Ritxi Blanco Aguilera
Ikerlaria

Alba Rico pentsalariak "gorputza" garela ahaztu dugula dio, eta ados nagoen arren, ez diot sinetsi nahi

Oraindik gordetzen ditut lau pareta horien artean xurgatutako izerdia, errebeldia eta maitasuna

Hiltegixen. Ez dakit zelan enteratu ginen, baina han egoteko aukera izan genuen. Bizitakoa ederra izan zen: akufenoak eta nire lehen crowdsurfiga.

2016. Rude Pride taldeak Sapuetxen jotzen zuen gau hartan. Sarrera guztiak agortuta eta gu berandu. Eskerrak bertokoa izateak abantailak dituen. Oraindik gordetzen ditut lau pareta horien artean

xurgatutako izerdia, errebeldia eta maitasuna.

2017. Kilometroak. Kotxea eta trena. Viveiro eta Bordele. Rancid eta Against Me! handiak. Agortzen ari zitzaidan nerabezeroarekin zorraz kitatzen.

2020. Azken guda dantza: Lisabö gure jainko ateak Elorrioko Arriolan. Jesarrita egoteari uko egin eta ia zalego guztia lehenengo ilaran ibili ginen, zutik eta zorrotz. Arrazoa ez du galdu burua galdu duenak.

Animo lurrazpiko poesiaren maitale orori. Bueltatuko gara.



**Gaizka Kortazar
Aldazabal**
Eskaladarako 400 bat
bide sortu ditu.
Durango | 1969

“Eskalada bidea gustatu zaiola entzutea jendeari, hori da saria”

Gaizka Kortazarrek ia 30 urte daramatza eskualdeko mendietan eskaladarako bideak diseinatzeko eta ekipatzeko. "Mendia eta eskalada maite ditudalako egiten dut", dio

ESKALADA • JOSEBA DERTEANO

Haitzetako eskultorea da. Besteok arroka soilak ikusten ditugun tokian, eskaladarako bide posibleak imajinatzen ditu berak. 1992tik hona, 400 bat bide diseinatu eta ekipatu ditu Durangaldeko mendietan. Bere azken 'artelana' Oizko hareharrian dago. 2020an zehar 30 bat bide zabaldu ditu Ametzorbe mendiko paretean.

Eskaladari buruz berba egitean, Anboto mendilerroko haitzetara joaten zaigu begia. Zelan deskubritu zenuen Oiz inguruko pareta?

Orain 20 bat urte deskubritu nuen. Ametzorbe 600 bat metroko mendia da eta Oizko mendilerroan dago. Handik nenbilenean, atentzioa ematen zidan pareta bat ikusten nuen. Baina pinudi bat paretatik oso gertu zegoen. Ezin zen ezer egin. Koinatuak beherago zegoen beste horma baten berri eman zidan. Horma erakargarria iruditu zitzaidan. Pinuak ez zeuden hormatik gertu eta bideak sortu nituen.

Bigarren gunea egiteko, pinuak bota arte itxaron behar izan zenuen? Bai. 2018an bota zituzten. Baina horma goroldioz beteta zegoen, berde eta umel. Hegoaldera ematen duenez, eguzkiak lehortu arte itxaron genuen. 2020ko martxoan hasi ginen lanean.

Konfinatu gintuzten hilean.

Zapatuan horman lanean geunden eta hurrengo egunean konfinatuta! Sokak bertan geratu ziren. Mendi erreskaterako taldean ditudan lagunei eskerrak errekuperatu nituen. Konfinamendua amaitu eta segituan hasi ginen berriro lanean. Beraz, une honetan eskaladarako gunek bi daude Ametzorben: iparraldekoa 20 bat bideguz, eta hegoaldekoa berria, 29 bideguz.

Ametzorben, ohiko kareharria barik hareharria da nagusi.

Kareharria harri bigunagoa da. Iparraldekoan nabaria da hareharria dela, baina hegoaldeko egitura gogorragoa da. Kolorea bera ere harearrian ohi dena baino zuriagoa du; kareharria dirudi.

Hasiberrientzat bide aproposak direla aipatu izan duzu.

Hegoaldeko gunek berriro bide errazak daude, eskumako aldean batez ere. 4. edo 5. gradu bideak dira: laburrak, etzanak eta heldugune askokoak. Gaztetxoekin joateko aproposak dira. Beheko guneko bideak, oster, gogorragoak dira.

Zelan heldu daiteke bertara?

Nire gomendioa da kotxea Oizko forestalean uztea, merenderoa dagoen tokian. Iparraldeko bideak handik 20 minutura daude, eta hegoaldeko berriak ordu erdira.

Bideetako batek 'Covid-19' izena du.

Ez da bakar. Bide bat baino gehia-

ko ikusi dut antzerako izenekin: koronabirus, Covid, konfinamendu... Bizi dugun sasoi da!

Durangaldeko zein ingurutan zabaldu dituzu bideak?

Ametzorben, Untzillatzen, Besaiden eta Udalatxeko meategi inguruan.

Guztira, zenbat bide sortuko zenituen? Untzillatzen bakarrik 300etik gora. Denak kontuan hartuta, 400 inguru.

Horien guztien artean, baduzu bide edo gunek kutunik?

Untzillatzen, Elosu izeneko sektorean, 'oroimenaren bidea' izeneko gunek bat dago eta niretzat berezia da. Nevado Ojos de Salado mendian [Andeetan, Argentina eta Txile arte-

“**Untzillatzen goiko aldean 'Pintxo' izeneko bide bat dago; nik dakidala, inork ez du bide hori egin oraindik**”

ko mugan] hildako lagun bati eskainita dago. Hainbat lagun aritu ginen lanean. 90eko hamarkadaren hasiera zen eta orduan hasi nintzen bideak ekipatzeko. Harrezkero, ez naiz geratu. Untzillatzen bide gutxi zeuden orduan, nahiko mendi birjina zen alde horretatik.

Bakarrik aritzen zara bideak ekipatzeko?

Lehenengo urteetan bakarrik aritzen nintzen. Noizean behin, lagunek laguntzen zidaten. 2013tik hona, Leticia Uriarte elorriarrak asko lagundu dit. Nigaz eskalatzen hasi zen eta, nire antzera, asko gustatzen zaio bide berriak sortzea. Abadiñoko, Berrizko eta Basauriko lagun batzuek ere lagundu izan didate. Untzillatxeko bideak ekipatzeko nenbilan sasoi, Jaime Alonso durangarrak ere lan handia egin zuen.

Zelakoa da eskaladarako bideak ekipatzeko lana?

Oso lan gogorra da eta denbora asko kentzen du. Jendea hasten da, baina ikusten duenean zelako lana den nekatu egiten da. Ez da eskalatzea bezain dibertigarria! Baina normala da eta ulertzen dut.

Afizioagaitik egiten duzu?

Bai. Mendia eta eskalada maite ditudalako egiten dut. Bizkaiko mendi federazioan talde txiki bat gabiltza bideak ekipatzeko edo berrekipatzeko. Ez dugu ezer kobratzen. Federazioak, ahal duen neurrian, ekipatzeko materialaren zati bat ematen digu.

Lan gogorra da, esker txarrekoa sarritan, diruak norbere poltsikotik ipini behar... Zerk asebetetzen zaitu?

Eskalada bidea gustatu zaiola entzutea jendeari, hori da saria. Ez pentsa orain gutxi arte hasiberrien-

tzat bide asko egon denik inguruetan. Atxarte, orokorrean, toki exigentea da. Nik ideia hori izan dut buruan beti: eskaladaren munduan hasi eta apurka sakondu gura zutenentzat bideak sortzea. Beraz, jendeak hori eskertzen dizunean, ez dago sententzio hoberik.

Egidazu bide bat ekipatzeko dakarren lanaren deskribapen txiki bat.

Ametzorben, esaterako, hormaren goiko aldean dauden zuhaitzetan soka lotu eta handik igotzen gara. Bidea imajinatu behar da eta helduleku posibleak markatu behar dira. Aipatu dudanez moduan, goroldioa kentzeak ere lan handia eman digu. Gero, federazioaren araudiari jarraituz dena ekipatzeko dugu.

Eta zelakoa da sormen prozesua? Begirada berezia behar da bide berriak 'ikusteko'?

Hormari behetik gora begira ipini, gogoeta egin, imajinatu... sormen prozesua da eta, bai, begiratzeko moduan asmatu beharra dago.

Badago bideren bat inork igotzea lortu ez duenik?


Untzillatzen goiko aldean, 'Pintxo' izeneko bide bat dago, 7a+ graduakoa. Nahiko gogorra da eta oso goian dagoenez jendea normalean ez da haraino joaten. Nik dakidala, inork ez du bide hori egin oraindik. Baina ez da erraza jakitea. Igual norbaitek egingo zuen nik jakin barik.

Webgune bat sortu duzue bide guztien berri jasotzeko.

Bai, hau da webguneko helbidea: www.untzillatzen-sur.com. Leticia Uriarte okurritu zitzaion sortzea. Izan ere, liburuak zaharkituta geratzen dira bide berriak zabaltzen zozen neurrian. Webgunea, oster, bizirik eta eguneratuta dago.



Ametzorben, hegoaldeko gunek berria. Eskumako aldean aproposa da hasiberrientzat



Ametzorben orain 20 urte ekipatutako iparraldeko gunea.

Zornotza Saskibaloia taldea bere multzoko lider ipini da Zilarrezko Ligan

Tabirako Baquek ere bikain hasi du denboraldia LEB mailan orain arteko biak irabazita



Zornotza Saskibaloia Taldeak lau garaipen eta porrot bat daramatza orain arte.

SASKIBALOIA • JOSEBA DERTEANO

Futboleko Amorebieta eta Durangoko Kulturala taldeekin gertatzen den moduan, saskibaloian ere ezin hobeto hasi dute denboraldia eskualdeko talde nagusiek. Zornotza Saskibaloia Taldea lider ipini da Zilarrezko Ligan, eta Tabirako bigarren tokian dago LEB Mailan.

Mendebaldeko Konferentzian lider zegoen Alega Kantabriak ezin izan zuen joan zen asteburuko partidua jokatu, aurkariaren taldeko jokalariek batzuek positibo eman zutelako koronabirusaren probetan, eta Zornotzak ez zuen alferrik galdu sailkapenaren gorenean kokatzeko aukera. Baina Mikel Garitaonandia gidatutako gizonen lana goetik egin behar izan zuten Udea Algeciras mendean hartzeko. Azken emaitzak (85-69) ez du islatzen partiduen nondik norakoa, batez ere lehenengo zatikoa, zornotzarrak markagailuan azpitik joan zirenetan aldageletara: 30-34. Hirugarren laurdenean beste bizitasun batez kantxaratu ziren eta 10 minutuan erabakita utzi zuten norgehiagoka:

58-43. Azken laurden erosoak aldeareagotzeko balio izan zuen. Une honetan lau garaipen eta porrot bat daramatza Zornotzak Mendebaldeko Konferentzian.

Koronabirus kasuen ondorioz, hainbat partidua bertan behera geratu dira liga bietan

Maila bi beherago, LEB Ligan, liga hasiera itxaropentsua izan du Tabirako Baquek ere. Orain arte jokatutako partidua biak irabazi ditu, eta bigarren tokian kokatuta dago bere konferentzian. Lehenengo jardunaldian Santurtzi menderatu zuen (46-56), eta bigarrenengo Goierri Iparragirre (58-43).

Zilarrezko Ligan zein LEB Mailan hainbat partidua bertan behera geratu izan dira COVID-19aren kasuengaitik. Horregaitik, talde batzuek hainbat partidua falta zaizkie jokatzen.

Jokaldia

Dopamina baraualdia

Kirol errendimenduan interesa duenak izango du aldizkako elikadura baraualdien berri. Baina oraingo honetan ez naiz arituko hidrato, koipe eta abarren inguruan berbetan. Gaur dopamina baraualdiez hitz egin nahi dizuet.

Silicon Valley (Kalifornia, Ameriketako Estatu Batuak) jarri omen zen baraualdi mota modan. Zertan datza? Plazera eragin baina egunerokotasunean denbora kentzen diguten zenbait ekintza egiteari uztea. Hala nola sare sozialak erabiltzea, telesailak ikustea... Baraualdi honen helburua garuna berrabiarazi eta arreta ekintza emankorragoetan jartzea da. Gozamen eragiten duen ekintza batekin dopamina neurotransmisorea jariatzen da eta honek



Garazi Sampedro Arando
Mendi lasterketak

Silicon Valley jarri omen zen baraualdi mota modan: denbora kentzen diguten zenbait gauza egiteari uztea

Orain, bakarrik entrenatzera behartuta, dopamina maila txikiekin asebate beharko dugu gure barrena

norbera saritzeko prozesua jartzen du martxan. Plazer hori behin eta berriz sentitu nahirik, gure ohiko bizimoduko beste gauza asko ez omen ditugu apreziatzen.

Mendi lasterketak maite ditugunontzat garai eskasa oraingoa. Lehia-tzeaz gainera, hainbat txokotako

lagunekin elkartu eta momentu on horiekin aurkitzen dugu gozamenak. Lasterketak bertan behera geratu diren arren, lagunartean entrenatzen jarraitu dut azkenaldian. Hor ere plazera helburu: izerditu osteko hizketalditxo eta barreak... ez da asko gehiago behar!

Gaur egun bizi dugun sasoi honetan, bakarrik entrenatzera behartuta, dopamina maila jaitsi eta estimulu txikiekin asebate beharko dugu gure barrena. Ez dakit hori COVID19-aren aurkako neurri eraginkorra den, baina behintzat bakarrik entrenatzen ez dakienari erakutsiko dio bakardadea gehiago maitatzen. Eta beharbada hemendik denbora batera berriro elkartzen garenean intentsitate handiagoz biziko ditugu taldekako entrenamendu saioak.

Xiberoko ikastolen aldeko saski salmenta

Azaroaren 1etik 30era bitartean



Salmentari buruzko informazio guztia gure webgunean: www.ikaskoli.eus

DURANGALDE



Erroteta baserria

Berrizko zubi xarmangarri honek Sarriako erreka ingurura garamatza. Erroteta baserria ikusten da beste aldean. Errota, ola eta zentral hidroelektrikoa izandakoa da. "Ziur jakiterik ez badago ere, defentsarako torretxea izango zen jatorrian", azaltzen du ondoan duen informazio panelak.

KO TXOKOAK!

Asuntzan zaldiak libre

Zein mendizale ez da pasatu Asuntza ingurutik? Atxartetik, Urkiolamenditik, Zabalaunditik... hainbat bidetatik joan daiteke Asuntzara. Ez dago bertako Pol-pol iturriko ura edatea baino hoberik indarra hartu eta Anboto mendira igotzeko.





ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO



ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

//AUKERA

J.M. ALTUNA: 3 logela, komuna eta sukaldea. C.E.E=G. 215.000€
IURRETA: 2 logela, komuna, egongela eta sukalde - jangela. C.E.E= G. 115.000 €
MATIENA: Laubideta. 3 logela, komuna, sukalde handia eta egongela. Terraza. Garajea aukeran. C.E.E=E Alokairuan erosteko aukeragaz. 625 € / 170.000 €
ARAMOTZ: 3 logela, komun berria, sukaldea eta egongela. Berriztatua. Eguzkitsua. 125.000 €
IURRETA: alokairuan erosteko aukerarekin. 2 logela, komuna eta sukalde-jangela. Terraza. Bizitzen sartzeko moduan. 550 € / 115.000 €

//ETXEBIZITZAK SALGAI

IURRETA: 111 m2. 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela handia. 12 m2-ko terraza. Trastelekua. Garajea. C.E.E= E. 265.000 €
ANBOTO: 3 logela eta sukalde-egongela. Garaje itxia aukeran. C.E.E=F 160.000 €
ARTEKALEA: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela handiak. Terraza. Trastelekua. C.E.E=F 198.000 €
F.J. DE ZUMARRAGA: 4 logela, komuna eta egongela terrazarekin. Eguzkitsua. 220.000 €
MIKELDI: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Igogailua. C.E.E=E 160.000 €.
ABADIÑO: 1.000 m2-ko lursaila eraikitze baimenagaz. 250.000 €
DURANGO: Santa Ana. PROMOZIO BERRIA. 1,2 eta 3 logelakoak. Komuna. Trastelekua aukeran. 170.000 €-tik aurrera.
MATIENA: J.A. Unzueta. 3 logela, komuna, sukalde-jangela eta despentsa. Terraza. Igogailua. 2 trasteleku. C.E.E:E 145.000 €
ZEHARKALEA: ATIKOA. BERRIZTATUA. 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. C.E.E=F 156.000 €.
EUBA: BERRIZTATUA. 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. C.E.E=E 147.600 €.

ALDE ZAHARRA: Etxebizitza altua. 2 logela, egongela, sukalde-jangela eta despentsa. Igogailua. Berriztatua. C.E.E=E 185.000 €
KURUTZIAGA: 80 m2. 3 logela, komuna, sukalde-jangela eta egongela. Terraza. Ganbara. BERRIZTATUA. C.E.E=G 186.000 €.
ABADIÑO: 286 m2-ko familiabakarreko txaleta. 3 solairu. Txokoa upategiarekin.

//LOKALAK ETA GARAJEAK SALGAI

TRONPERRI: Garaje itxia. 21.000 €.
MENDIZABAL: Itxia. 24.000 €
ASKATASUN ETORBIDEA: 8.000€-tik aurrera garajeak.
ABADIÑO: 160 m2. Egokitua. Dena erakusleioa 2 kaletan. 175.000 €
F.J. DE ZUMARRAGA: Aukera. 114 m2. SALMENTA. 150.000 €. Negoziagarria.

//ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Askatasun Etorbidea. Etxebizitza ederra. 135m2. 4 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiagaz eta egongela. Garajea eta ganbara. Argitsua.
TRONPERRI: Pisu ederra. 4 logela. Garajea. Ganbara. Txoko eta terraza komunitarioak. Kokapen ederra.
MURUETA TORRE: Eguzkitsua. Ikuspegi ederrak. 3 logela, printzipala balkoiagaz, 2 komun, egongela eta sukaldea balkoiagaz. Garajea eta ganbara.
DURANGO: Jose Miel Barandiaran. Etxebizitza ederra. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Garajea eta trastelekua. Durango erdian.
DURANGO: Komentukalea. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Ganbara. Ikuspegi ederrak.
DURANGO: Hegoalde kalea. Eraikin txikia. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.

ABADIÑO

TORRESOLO: 3 logelako etxebizitza ederra. Guztiz berriztatua. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du.

ETXEAZPIA KALEA: Pisu zabala, 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. Ganbara. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ

ELIZONDO ETXETALDEA: Pisu guztiz eguzkitsua. Egongela, jangela, sukaldea, 2 komun eta 3 logela. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

DURANGO: 2.360 m2-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Zarratua eta zuhaitzekin. Eskaintza paregabea.

GAZTELUA: 10.000 m2-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Leku onean. Egokia.

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

MENDEXA: Izkinako adosatu paregabea. Kokapen ederra eta oso ondo mantendua. Ia berria.

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m2 solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MAÑARIA: Baserrira salgai. Herrian bertan. 3.000 m2-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.

ELORRIO: Aldape auzoa. Baserrira berriztatzeko. 3 hektareako lursaila. Prezioa: 115.000 €

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bi bizitzako baserrira. Berriztatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Eraikin txiki ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreintatzeko.

BULEGOAK ALOKAIRUAN

ABADIÑO

40 m2-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita.

GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

LOKALAK ALOKAIRUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

MATIENA: 460 m2-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

www.inmoduranguesado.com



DURANGO
3 logela
62,2 m²
ARAMOTZ: egongela, sukaldea eta komun berria. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. Bizitzen sartzeko moduan. Garajea aukeran; 14.000 €. **125.000 €. C.E.E:E**



DURANGO
75 m²
ERRETENTXU: Halla, egongela, sukalde jantzia, 2 logela eta 2 komun. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. Garajea aukeran. Igogailua. Alokairuan, erosteko aukeragaz. **C.E.E: E. 210.000 €.**



IURRETA
700 m²
PABILIOIA ARRIAUNDI POLIGONOAN: (16 m x 45 m), 8-10 m-ko altuera. Instalazio elektrikoa eta gas-erazgailua. Aurreinstalazioa zubi-garabirako. **525.000 € / Alokaria 2.500€**



ABADIÑO
150 m²
ITURRITXO: 3,3 m-ko altuera. Lokal guztiz atondua. Komuna, biltegia eta dendarako lekua. Prest edozein jarduerari ekiteko. Alokairuan, erosteko aukeragaz. **175.000€**



ZALDIBAR
3 logela
59 m²
SANTA ISABEL: 59 m². Egongela eta sukaldea. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du. BERRIZTATZEKO. Argitsua. 8 m2-ko trastelekua eta 40 m2-ko lursaila. Alokairuan, erosteko aukeragaz. **84.000€**



MATIENA
3 logela
81,7 m²
Arlozabal: 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Balkoia. 10 m2-ko ganbara. Eguzkitsua. Igogailua. **210.000 €. C.E.E: E**

//DURANGO

ALLUITZ KALEA: 4 logela, sukaldea, garbitokia eta 2 komun. Ganbara. Igogailua eta garaje itxia. **320.000 €/E.E.E=E**
ANBROSIO MEABE: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia, igogailua, ganbara eta garaje itxia. LEHEN **205.000 € / ORAIN 198.000 € / E.E.Z=E**
ERRETENTXU: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta igogailua. **190.000 € / E.E.Z=E** Garaje itxia aukeran.
FRAY JUAN DE ZUMARRAGA: 3 logela, sukaldea, egongela, bulegoa eta komuna. Igogailua. **220.000 € / E.E.Z=E**
MURUETATORRE: 2 logela, sukaldea balkoiagaz, egongela eta 2 komun. Igogailua. Ganbara eta garajea. **238.000 € / E.E.Z=E**
SANTIKURUTZ KALEA: Bi bizitzako etxea eraikitze 600 m2-ko lurzoria. **640.000 €**
TXATXIENA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. Garajea eta trastelekua. LEHEN **390.000 € / ORAIN 375.000 € / E.E.Z=E**

//ABADIÑO

ZELETABE: 3 logela, egongela, sukaldea eta 3 komun. Terraza. Garajea eta trastelekua. LEHEN **342.576 € / ORAIN 278.000 € / E.E.Z=E**
URKIOLA AUZO: 3 logela, sukalde-egongela-jangela eta 5 komun. Ganbara. Garajea. Lursailagaz. **285.000 € / ORAIN 248.000 € / E.E.Z=E**

//ATXONDO

ZIARRETA KALEA: 3 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta komuna. 2 balkoi. Ganbara eta garajea. **160.000 € / E.E.Z=G**

//BERRIZ

ANDIKONA AUZO: Berreraikitze baserria. 460.000 €.
BERRIZBEITIA KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. **120.000 € / E.E.Z=F**
ERROTATXO KALEA: 3 logela, sukaldea balkoiagaz, egongela eta komuna. **100.000 € / E.E.Z=G**
LEARRETA MARKINA: 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia. **102.000 € / E.E.Z=E**

//IURRETA

OROZKETA AUZO: 4 logela, 2 sukalde, egongela eta 2 komun. Terraza. Lursailarekin. LEHEN **650.000 € / ORAIN 595.000 € / E.E.Z=E**
AMILBURU MUSIKARIEN PLAZA: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza. Igogailua. Ganbara eta garajea. LEHEN **276.000 € / ORAIN 265.000 € E.E.Z=E**

//MATIENA

TXINURRISOLO: 3 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz, bainugela eta igogailua. LEHEN **200.000 € / ORAIN 168.000 € / E.E.Z=F**
TRAÑABARREN: 3 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta bainugela. 2 balkoi. Igogailua. Ganbara eta garajea. LEHEN **220.000 € / ORAIN 210.000 € / E.E.Z=E**

//BERRIAK


DURANGO
BARRENKALEA KALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, beheko-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENEKO 14:00AK ARTEKO EPEA

IRIGOIEN Bixente Kapanaga
3 - IURRETA

Miguel 15 - **ZORNOTZA**



EGUENA 15° / 8°



“Harri Koskor proiektu txikia da, mimo handiz sortutakoa”

Oihalak erabilita, Nekane Ortiz de Zaratek hainbat produktu sortzen ditu; uda honetan poltsak egiten ere hasi da. Sare sozialen bitartez erakusten ditu bere sorkuntzak



Nekane Ortiz de Zarate Ajuriagerra
Harri Koskor
Otxandio | 1980

OTXANDIO • AITZIBER BASAURI

Eskolarako materiala, nezeserrak, meriendako poltsak, mugikorraren kargagailuetarako zorroak... Eguneroko beharriaz erantzuteko produktuak sortzen ditu Nekane Ortiz de Zaratek, Harri Koskor izenpean. Guztiak oihalekin. Oihalak Arrasaten, Durangon edo Gasteizen erosten ditu. Hala ere, urtean behin edo birritan, Bartzelonara egiten du buelta, oihal bila.

Noiz eta zelan sortu zenuen Harri Koskor proiektua?

Oraindino jaiotze prozesuan dagoen proiektua dela esaten dut nik. Alaba jaio zenean hasi nintzen, orain zortzi urte. Jostea gustatzen zitzaidan eta Olentzerok ekarrita-

ko josteko makinagaz alabarentzat produktuak egiten hasi nintzen. Gauza piloa egin nuen eta lagunak xaxatzen hasi zitzaizkidan, saltzeko esaten. Bada, orain hiru urte stand-a ipini nuen Otxandioko abenduko azokan. Harri Koskorren aurkezpena izan zen. Arrakasta izan zuen, herrian oso ondo hartu zuten. Orduan hasi nintzen sare sozialetan apur bat zabaltzen. Beti maila txikian, ingurukoen-tzat egiten ditut produktuak.

Egunerokoan erabiltzeko hainbat produktu sortu dituzu.

Pardela aldatzeko toalla, txupetea lotzeko zinta, Montessori pilotak, arranberak... egiten hasi nintzen. Gero, kalerako arbel biribilkatue-

“

Alabagaz batera pausoz pauso hazten joan da Harri Koskor, eta inguruan sortzen ziren beharriazekin”

■

kin eta memoria jolasekin hasi nintzen, eskolarako estutxeekin... Alabagaz batera pausoz pauso hazten joan da Harri Koskor. Eta inguruan sortzen ziren beharriazekin ere bai. Horretan oinarrituta sortzen dut, eta luzaroan erabiltzeko helburuagaz.

Atzean bizi filosofia bat dago? Zaborra murriztera animatzeko era da.

Bai. Zaborra murrizteko eta gaur egungo kontsumo erak aldatzeko. Kalitatezko produktua sortzea da helburua, denbora iraungo duena.

Harritu zaitu izan duten harrerak?

Ez dakit txipa aldatzen ari garen edo denak duen lekua. Plazara joan eta Harri Koskorren merienda poltsak edo ogitarteko zorroak ikus-teak poza ematen dit, inora joan eta nik egindako poltsak ikusteak. Oso gertuko merkatua da Harri Koskorrena, eta ez dut zabaltzeko beharriazekin. Proiektu txikia da hau, mimo handiz sortutakoa.

Enkarguz lan egiten duzu batez ere.

Bai, eta ditudan oihalak erakusten dizkiet, aukeratzeko. Gustatzen zait norentzat ari naizen josten, nor dagoen atzean. Hala ere, baditut produktuak stock-ean, arrakasta dutenak. Azoketara eramateko, neuk gura dudana sortzen dut, eta hori ere asko gustatzen zait.

Zeintzuk dira arrakastatsuenak?

Ogitarteko zorroak, adurretaoak, pardelak aldatzeko toalla, konpresak eta tanpoiak eramateko zorroak...

Baduzu enkargurik bereziki gogoan?

Askok izan dira bereziak. Baina, orain gutxi, bezero batek sortutako hartu-eman berezia dut gogoan. Errotuladoreak gordetzeko ere balio zuen umeentzako karpeta bat ikusita, haren modukoa eskatu zidan berarentzat. Ez nuen argi ikusten, eta bion artean bere premiei egokitutako karpeta sortzea lortu genuen: *post it* bat, boligrafo bi eta koaderno sartzeko karpetatxoa, bilera bat duenerako. Polita izan zen bion arteko lan hori.

Zein duzu erronka?

Astiro doan proiektua da, nire erritmorak. Hori dut gustukoen. Ordu asko eskaintzen dizkiot, baina ez dut lan modura hartzen. Eta ez dakit nora helduko den eta zein bide hartuko duen. Orain, prozesu horretaz disfrutatzen ari naiz. Orain hiru urte inork ere ez zuen Harri Koskor ezagutzen; orain, askok ezagutzen dute, eta erabiltzen dituzte nik sortutako produktuak. Bakoitza oihal mota batek dago eginda, eta horretarako endredata egin behar da. Oraindino asko dut ikasteko.

Lau-hortza

Martin Loizate
Sarrionandia
Ikaslea



Ez zenuen dena eskatzen

Enplegatu berri zinen auzoko tabernan. Zerbitzariak behar zituztela eta egokia iruditu zitzaizun astean zeharrekostako mas-terreko ikasketak asteburuetan barra osteko lanarekin osatzea. Ez zen zure lehen soldata izango, lehendik ere lana egina baitzinen, taberna batean urte betez, hotel batean erasmusean zinela, aholkularitza bulego batean praktikatzen, eta beste taberna batean bi urtez jarraikera horretan.

“Crean un cuchillo capaz de cortar líquidos” irakurri duzu interneteko bilatzailearen hasiera orrian agertzen zaizkizun notizietako batean.

Geroago kontaktua zinez 10 egun egin zenituen etxetik irten gabe, eta ez litzateke zehatza lana galdu zenuela esatea, hasi ere justuan egin baitzinen. Tabernak itxi zituztenerako asutua zenuen ikasturtea ez zela abuztuko planifikazioekin bateragarria izango. “Zure aukeren gaitetik” planteatu zenituen gauzak antza, nahiz eta hasieratik bertatik planetik kanpo utzi Kanarietara bidaia edo etxe bat bilatzen hasteko asmoa esaterako.


Hiru minutuero poltsikotik ateratzen duzun smartphonearen pantaila kraskatuak gogoratu arazten dizu zein hauskorra den etorkizuna, eta oraina.

Larunbat gauak ziren astean zehar barruan pilotutakoak husteko momentua, baina desagertu ziren larunbatak edo behintzat igandeen antza hartu zuten larunbatena baino gehiago, eta datorren astearen zama motxilan kargatzen zabilta lekua egin ezinik.

Orain arteko heldulekuak hautsi zaizkizu, eta gai zara, erortzeaz zaudela, sutan den kitenari heltzeko.

leike aroztegia & diseinua

NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com Antso Estegiz, 3 Durango · Tlf.: 94 681 72 29 · leike.ad@gmail.com